

2026

2. hiruhileko

EAEkoekonomiaren hiruhilabetekaria

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIA, LAN ETA
ENPLEGU SAILA
Ekonomia Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA,
TRABAJO Y EMPLEO
Dirección de Economía

EAE-KO EKONOMIAREN

HIRUHILABETEKARIA 2026

2.HIRUHILEKOA

Koiuntura eta Aurreikuspen Ekonomikoen Zerbitzua



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2026

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke : <https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Argitaraldia: 2026ko ekaina

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1–01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea eta itzulpena: Koiuntura eta Aurreikuspen Ekonomikoen Zerbitzua
Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila

ISSN: 3101-1578 (online bertsioa)

EAEko ekonomiaren hiruhilabetekaria

LABURPENA	3
EKONOMIAREN INGURUNEA.....	5
EAE-KO EKONOMIA.....	9
Ekoizpena eta enplegua.....	9
Barne eta kanpo eskaria	13
Prezioak, soldatak eta kostuak	19
Arlo publikoa.....	24
Arlo finantzarioa	25
Aurreikuspenak.....	30

Irudien aurkibidea

Munduko ekonomia. BPGa (I)	5
Munduko ekonomia. BPGa (II).....	7
Enpleguaren bilakaera	12
Etxebizitzaren hipoteken bilakaera.....	29
2026ko eta 2027ko aurreikuspenak (I)	37
2026ko eta 2027ko aurreikuspenak (II)	38

Taulen aurkibidea

Eskaintzaren aldagaiak.....	9
Jardueraren adierazleak.....	10
Eskariaren aldagaiak	13
Kontsumo eta inbertsioaren adierazleak	14
Esportazioak produktuen arabera	15
Esportazioen helmuga.....	16
Inportazioen jatorria	18
Kontsumoko prezioen indizearen banaketa.....	20
EAEko kontsumoko prezioen indizea	21

Hitzarmenetan adostutako soldata igoerak.....	22
Lan kostuak.....	23
Tributu itunduen bilakaera (urtarrila-abendua)	24
Adierazle monetario eta finantzarioak (I)	26
Adierazle monetario eta finantzarioak (II)	28
Ekonomia aurreikuspenak.....	31
Espainiako ekonomiarako aurreikuspen ekonomikoak (2026ko ekaina).....	33
Aurreikuspenak egiteko hipotesiak (2026ko ekaina).....	34
EAEko ekonomiarako aurreikuspenak hiruhilekoka (2026ko ekaina).....	36

LABURPENA

2026ko lehen hiruhilekoan, EAEko ekonomia %2,2 hazi zen urte arteko tasan, eta horrek dezelerazio txiki bat dakar aurreko hiruhilekoaren aldean, nahiz eta hazkunde erritmo sendo bati eutsi. Hiruhilekoen artean, gorakada %0,5ekoa izan zen, aurreko hiruhilekoaren maila berean, Ekialde Hurbileko gatazka piztu ondoren nazioarteko ziurgabetasunak gora egin zuen testuinguruan. Tasa hori bat dator Ekonomia Zuzendaritzaren aurreikuspenarekin, ingurunea bat-batean aldatu den arren. Europako beste ekonomia batzuekin alderatuta, Euskadiren dinamismo handia izaten jarraitzen du, barne eskariaren sendotasunean oinarrituta, ahulezia nabarmena erakusten duen eurogunearen aurrean.

Eskaintzaren ikuspegitik, industriak izan zuen berriz ere portaera okerrean, urte arteko beharakada txikiarekin eta hiruhileko arteko narriadura nabarmenagoarekin, batez ere manufakturretan. Bilakaera hori kanpoko eskariaren ahultasun testuinguru batean kokatzen da, ekipamenduko eta tarteko ondasunei eragiten diena, bai eta industria jarduera baldintzatzen duen ziurgabetasun ingurune batean ere. Egoeraren araberako adierazle nagusiek tonu negatibo hori luzatzen dute, nahiz eta azken aldiko hobekuntza seinaleren batekin.

Bestalde, eraikuntzak urte arteko hazkunde positiboari eutsi zion, nahiz eta agerian utzi zuen aurreratutakoa baino dezelerazio handiagoa eta aurreko hiruhilekoaren aldean atzerakada bat. Bilakaera hori ingeniarietza zibilaren portaera okerragoaren ondorio da, eraikuntzaren erresistentzia handiagoarekin konpentsatu gabe, kostuek gora egin duten testuinguru batean. Aitzitik, zerbitzuek hazkundearen eragile nagusi gisa zuten papera sendotu zuten, %3 inguruko aurrerapenarekin eta bilakaera egonkorrekin. Merkataritzaren, ostalaritzaren eta merkatuko gainerako zerbitzuen dinamismoa nabarmendu zen, eta jarduera publikoek hazkunde handiagoa izan zuten. Oro har, azkenaldiko ereduari eutsi zaio, zerbitzuek hazkundeari eusten baitiote, industriaren ahultasunaren eta eraikuntzaren moderazioaren aurrean.

Eskariaren ikuspegitik, hazkundea argi eta garbi oinarritu zen barne eskarian, zeina %3,5era arte bizkortu baitzen, kanpo arloaren narriadura konpentsatuz, haren ekarpen negatiboa 1,3pp izan baitzen. Barne eskariaren barruan, etxeko unitateen kontsumoak euskarri nagusia izaten jarraitu zuen, %2,7ko hazkundearekin, azken erregistroen ildotik eta enpleguaren bilakaerak lagunduta. Inbertsioak ere portaera dinamikoa erakutsi zuen, %4,8ko tasarekin, batez ere ekipamenduko ondasunek bultzatuta, nahiz eta hiruhilekoen arteko hazkunde moderatuak ziurgabetasunaren gorakadari lotutako bultzadaren galera posiblea iradokitzen duen. Kontsumo publikoa bere intentsitateagatik nabarmendu zen, %4,1eko hazkundearekin, langileen gastuaren igoerarekin lotuta. Kanpo sektoreari dagokionez, esportazioek %1,4ko jaitsiera izan zuten, eta inportazioek, berriz, %0,5 egin zuten gora, eta horrek eragin negatiboa izan zuen.

Lan merkatuak, bestalde, bilakaera positiboa izan zuen. Enplegua, lanaldi osoko baliokidetzako lanpostuetan neurtuta, %1,3 hazi zen urte batetik bestera, eta horrek esan nahi du azken urtean 12.400 enplegu baino gehiago sortu direla, eta maila milioi bat lanpostutik gora finkatzea ahalbidetzen du. Hazkundera zerbitzuetan kontzentratu zen, eraikuntzak ere ekarpen positiboa egin zuen eta industriak enpleguaren beherakada txiki bat izan zuen. Langabezia tasa %6,7ra jaitsi zen, aurreko urtean baino hiru hamarren gutxiago, biztanleria aktiboak gora egin zuen testuinguruan, batez ere emakumeen artean, eta okupazioa pixkanaka hobetu zen. Zehazki, emakumeen okupazioak dinamismo handiagoa erakutsi zuen, urte arteko %2,6ko aurrerapenarekin, eta gizonen okupazioak, berriz, % ,2koa. Horri esker, emakumeen okupazio tasa igo egin zen eta gizonekiko konbergentzia aurrera egin zen. Halaber, emakumeen langabezia tasa %6,9ra jaitsi zen, eta gizonena, berriz, %6,6ra, bien arteko aldea murriztuz.

Prezioei dagokienez, adierazleek urtearen hasieran izandako bilakaera murriztua erakusten dute, baina azken hilabeteetan gora egin du. Inflazioa %2,7koa izan zen lehen hiruhilekoan, eta %3,2raino igo zen maiatzean, erregaien garestitzeak eta zerbitzuen prezio igoeren iraunkortasunak bultzatuta. Azpiko inflazioak ere neurrizko gorakada izan zuen, eta horrek inflazio presioen nolabaiteko hedapena adierazten du. Bestalde, BPGaren deflaktorea egonkor mantendu zen %2,6 inguruan, osagaien arabera bereizitako portaerekin. Testuinguru horretan, inflazioaren etorkizuneko bilakaerak ziurgabetasun maila handia du, hein batean energia prezioen gainera babes neurriak pixkanaka kentzeak baldintzatuta.

Azkenik, lan kostuen bilakaerak azelerazio argia erakusten du. Lan kostu osoa urte arteko %7,1 hazi zen lehen hiruhilekoan, batez ere soldata-kostuek bultzatuta, baina osagai ez arruntek garrantzi handia izan zuten. Soldata kostu arrunta erritmo txikiagoan hazi zen (%4,6), baina inflazioa baino gehiago, eta horrek erosteko ahalmena pixka bat handitzea ahalbidetu zuen. Igoera hori bereziki handia izan zen lan egindako ordu bakoitzeko (%8,6), benetako orduak murriztu zirelako.

Aurreikuspen makroekonomikoei dagokienez, eskura dagoen koiunturazko informazioarekin eta inguruari buruzko hipotesi berriekin, Ekonomia Zuzendaritzak 2026rako BPGaren hazkunderaren estimazioa %1,9an mantentzen du eta 2027ari dagokiona apur bat gorantz berrikusten du %1,7ra arte. 2027rako berrikuspen horrek, funtsean, kanpo egoera zertxobait onuragarriago baten itxaropenari erantzuten dio, Europako ekonomien hazkundera hobetzearekin, kanpo sektorearen eragin negatiboa murriztuko bailuke. Hazkunderak, batez ere, barne eskarian oinarritzen jarraituko du, eta lan merkatuak, berriz, aurrerapen moderatuari eutsiko dio, 2026an %1,1 eta 2027an %0,9 haziko baita enplegua, eta horrek 11.000 eta 9.000 lanpostu inguru sortzea ekarriko du, hurrenez hurren.


EKONOMIAREN INGURUNEA

2026ko lehen hiruhilekoan, munduko ekonomiak, oro har, hazkunde-tonu egonkor samarra mantendu zuen, eta neurri handi batean 2025eko bigarren erdian ikusitako inertzia luzatu zuen. Aldi horretako aldaketarik garrantzitsuena, ordea, otsailaren amaieran Estatu Batuen, Israelen eta Iranen arteko gatazkaren hasiera izan zen. Gatazka horrek beste eskaintza shock bat sortu zuen kanal energetikoaren bidez, eta ziurgabetasuna nabarmen areagotu zuen.


Brentaren prezioa 120 dolarretik gorakoa izan zen upeleko, gasa berriro tenkatu zen Europan eta finantza aldakortasunak gora egin zuen. Hala ere, igoera hiruhilekoaren amaieran gertatu zenez, jardueraren datuetan izan zuen eragina oso mugatua izan zen oraindik. Horregatik, lehen hiruhilekoaren balantzeak, funtsean, hazkunde patroiaren jarraipena islatzen jarraitzen du, salbuespen nabarmen batekin bada ere: eurogunea, zeina argi eta garbi alden du baitzen dinamika horretatik arrazoi propioengatik, gatazkaren erabateko eraginetik kanpo oraindik ere.

Munduko ekonomia. BPGa (I) Urte arteko aldakuntza tasak

ELGA



Txina



Iturria: ELGA.

Garapen bidean dauden ekonomietan, jarduera ekonomikoak dinamismo handiagoa erakutsi zuen aurreratuetan baino. Txinak urte arteko %5,0ko hazkundea izan zuen lehen hiruhilekoan. Tasa hori oraindik handia da ekonomia garatuekin alderatuta, nahiz eta osaketa ez oso orekatua izan. Industria jarduerak eta kanpo arloak BPGa bultzatzen jarraitu zuten, eta barne eskariak ahuleziak erakusten jarraitu zuen. Testuinguru horretan, kontsumo pribatuari kalte egin zioten

etxekoen unitateen konfiantza baxua eta higiezinaren doikuntzaren iraunkortasuna, eta horrek hazkunde patroia oraindik desorekatua eta eskaintzan gehiegi oinarritua mantentzen du. Horrez gain, energia dibertsifikazio handiagoak eta ikatzaren eta berriztagarrien pisuak Ekialde Hurbiletik datorren shockaren zati bat moteltzen badute ere, lehengaien garestitzeak eta eskualdearen dezelerazioak hauskortasun elementu gehigarri bat suposatzen dute.

India, berriz, munduko ekonomia dinamikoen artean kokatu zen berriro, urte arteko %8,0ko hazkundearekin, barne eskariaren sendotasunean oinarrituta, bai kontsumoan, bai inbertsioan. Hala ere, inportatutako energiarekiko mendekotasun handia duenez, bereziki ahula da petrolioaren etengabe garestitzen ari delako, eta horrek inflazioa presionatu, kanpoko saldoa narriatu eta datozen hilabeteetan barne gastuaren bultzada moteldu lezake. Oro har, urte hasieran izandako dinamismoa gorabehera, bi ekonomiek epe laburrean izan duten bilakaera zalantzazkoa da oraindik. Mexikok, aldiz, azkar galdu zuen 2025aren amaieran berreskuratutako dinamismoa. Laugarren hiruhilekoan urte arteko %1,6 hazi ondoren, BPGa %0,4ra moteldu zen 2026ko lehenengoan, eta horrek agerian uzten du susperraldiaren hauskortasuna, trakzio txikiagoko, barne eskari mugatuko eta munduko merkataritza ahultzeko arrisku handiagoko testuinguruan.

Ekonomia aurreratuen taldean, ELGA osoaren hazkundera bat etorri zen 2025ean ikusitako egonkortasunarekin. Lan merkatuek jarduerari euskarria ematen jarraitu zuten, eta inflazioak, hiruhileko amaierako energia gorakadaren aurretik, nolabaiteko normalizazioa erakusten jarraitzen zuen. Abiapuntuko posizio horrek laguntzen du azaltzen, oraingoz behintzat, shock geopolitiko askoz gehiago islatu dela energia prezioetan, konfiantzan eta itxaropenetan, jardura adierazle nagusietan baino. Irudi bateratu horren azpian, ordea, desadostasunek argiak izaten jarraitu zuten: Estatu Batuek profil nahiko sendoa mantendu zuten, Japoniak indar gutxirekin egin zuen aurrera eta euroguneak berriro eman zuen irudi ahulena bloke aurreratu handien artean.

Hala, Estatu Batuak ekonomia aurreratuen artean dinamikoenetako bat bezala nabarmendu zen, 2026ko lehen hiruhilekoan urte arteko BPGaren %2,7ko hazkundearekin, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta bizkortuz. Kontsumo pribatua izan zen jardueraren euskarri nagusia, %2,1ko hazkundearekin, zerbitzuetan gehiago oinarrituta ondasunetan baino. Inbertsioak portaera desberdina izan zuen, eta beherakadak izan zituen etxebizitzetan eta egituretan, bizitegi besteko inbertsioaren dinamismoaren aurrean, batez ere ekipamendu ondasunetan eta jabetza intelektualean. Kanpoko sektoreak ere lagundu zuen hazkundera, goranzko esportazioekin eta atzeraldiko inportazioekin.


Japoniak, berriz, oso aurrerapen mugatua izan zuen 2026ko lehen hiruhilekoan, urte arteko BPGaren %0,4ko hazkundearekin, 2025eko bigarren erdian hasitako dinamismo galera luzatuz. Ahuleziak, funtsean, barne eskariaren trakzio eskasari erantzuten dio. Kontsumo pribatuak ia ez

du bulkada-gaitasunik erakusten, errenta errearen geldialdiak baldintzatuta; aldiz, enpresa inbertsioak doitzen jarraitzen du, alde aurreko hedapen zikloaren ondoren, konfiantza txikiagoa eta kanpo ingurune ez hain ona islatuz. Testuinguru horretan, esportazioen hobekuntza, 2025. urtearen amaierako beherakadaren ondoren suspertzen ari dena, ez da nahikoa barne ahultasuna konpentsatzeko, eta, beraz, Japoniako ekonomiak hazkunde bide oso murriztean jarraitzen du.


Munduko ekonomia. BPGa (II)

Urte arteko aldakuntza tasak

AEB



Eurogunea



Iturria: BEA eta Eurostat

Euroaren eremuari dagokionez, 2026ko lehen hiruhilekoan dezelerazio oso handia izan zuen; izan ere, urte arteko tasetan %0,3 baino ez baitzen hazi, aurreko hiruhilekoan %1,2 izan zen bitartean. Hala ere, emaitza hori tentuz interpretatzea komeni da. Datuak oraindik ez du modu esanguratsuan jasotzen Ekialde Hurbileko gerrak izan duen eragina, hiruhilekoaren amaieran hasi berria baitzen, baizik eta eurogunearen aurretiko ahultasuna, kontsumo pribatuaren moderazioan agerikoa (%1,1), inbertsioaren moteltze handian (%0,3) eta kanpo arloaren narriadura ikus daitekeena, esportazioak %2,1etik %-0,9ra erori baitziren. Horri gehitu behar zaio Irlandaren beherakada handia, eremuko agregatuaren beheranzko berrikuspene areagotu zuena.

Euroaren eremuko ekonomia handien artean, Alemaniak izan zuen berriz ere portaera ahulena, urte arteko %0,4ko hazkundearekin, industriaren hauskortasun iraunkorreko, kontsumoaren trakzio eskaseko eta esportazioen jaitsiera berriko testuinguru batean. Frantziak ere oso profil motelari eutsi zion, %0,9ko aurrerapenarekin, oraindik ahula zen barne eskarian oinarrituta eta kanpo ingurune ez oso onean. Italiak, %0,8ko hazkundearekin, sendotasun pixka bat handiagoa

erakutsi zuen inbertsioan eta kontsumoan, baina ez nahikoa oraindik apala zen sakoneko ibilbidea aldatzeko. Espainia, aldiz, gainerakoetatik aldendu zen berriro, %2,7ko hazkundearekin, barne eskari dinamikoagoan oinarrituta, bereziki kontsumoan eta inbertsioan. Irlandaren kasuan, BPGa %2,9tik -%16,8ra igaro zen, nahiz eta narriadura partida bereziki hegazkorretan kontzentratu zen, hala nola inbertsioan eta esportazioetan, multinazionalen jardueraren eragin handia izan zutenak, barne kontsumoak ez bezala, horrek hazten jarraitu baitzuen. Hala eta guztiz ere, eremuaren ahultzea aurretik ere nabarmena zen, portaera horren efektu anplifikatzailetik haratago.

Hala ere, euroaren eremuko lan merkatua izan zen oraindik ere jardueraren euskarri nagusia. Langabezia tasa %6,3koa izan zen apirilean, eta etheen errentari eta kontsumoari eusten jarraitu zuen, neurri batean. Okupazioari dagokionez, enplegua %0,5 hazi zen urte batetik bestera, baina aurreko hiruhilekoetan baino intentsitate txikiagoarekin, jarduera ekonomikoak dinamismoa galdu zuen testuinguruan. Testuinguru horretan, hozteko seinaleak antzematen hasi dira: lan-eskuaren eskaria moteldu egin da, lanpostu hutsen tasa pandemiaren ondoren lortutako mailen azpitik dago, eta enpleguaren adierazle aurreratuen arabera, bultzada ahulagoa da; hala, enpleguak hazten jarraitzen du, baina osagai gero eta inertzialagoa eta hedakorragoa du.

Inflazioak, berriz, gora egin zuen azken hilabeteetan. Apirilean %3,0an kokatu ondoren, maiatzean %3,2raino igo zen, energiaren garestitzeak markatutako testuinguruan, zerbitzuen ekarpen nabarmenarekin bada ere. Testuinguru horretan, azpiko inflazioa ere %2,6ra igo zen, eta horrek esan nahi du presio inflazionistak energiatik harago ere zabaldu zirela, baina oraindik ere modu geldian.

Bigarren hiruhilekoari begira, aurreratutako adierazleen arabera, ingurunea oraindik ahula da. Euroaren eremuko PMI konposatua 48,5ean kokatu zen maiatzean, eremu uzkurgarrian sakonduz eta urte eta erdian mailarik baxuena ezarritik, Frantzia ahultasun iraunkorreko testuinguru batean, Alemanian dinamismo eskasean eta Italian nolabaiteko bultzada galeran. Atzerakada zerbitzuetan kontzentratzen jarraitu zen; industriak, berriz, hedapenean jarraitu zuen, baina erritmo apalagoan. Bestalde, konfiantza adierazleek nolabaiteko egonkortzea erakusten dute, aurreko jaitsieren ondoren. Sentimendu ekonomikoaren adierazlea ia egonkor mantendu zen maiatzean, eta enplegu itxaropenek gora egin zuten apirileko minimoetatik, nahiz eta bi kasuetan oreka mailen azpitik egon eta zuhertasuna islatzen jarraitzen duten. Oro har, adierazle horiek tonuaren hobekuntza hasiberria iradokitzen dute, baina oraindik ez da nahikoa epe laburrean susperraldi iraunkorra aurreratzeko, eurogunerako hazkunde aurreikuspenak nazioarteko erakunde nagusiek beharantz berrikusi dituzten testuinguru batean.

EAE-KO EKONOMIA

Ekoizpena eta enplegua

2026ko lehen hiruhilekoan, EAEko ekonomia %2,2 hazi zen urte arteko tasan, eta horrek dezelerazio txiki bat ekarri zuen aurreko hiruhilekoaren aldean. Hala ere, hiruhileko batetik bestera, hazkundea %0,5 ingurukoa izan da, nahiz eta nazioarteko ingurunea gero eta konplexuagoa izan. Ekialde Hurbileko gatazkak ziurgabetasun handia eragin arren, hazkunde-tasa hori bat dator Ekonomia Zuzendaritzak gerra bete-betean hastean aurreikusitakoarekin. Europako gainerako ekonomiek ez bezala, euskal ekonomiak dinamismo maila handia izaten jarraitzen du, barne eskariak eutsita, batez ere zerbitzuen hazkundeak bultzatuta, biztanleria aktiboaren hazkundeak ahalbidetutako enplegu sorrerari esker. Horren aurrean, euskal industriak Europako gainerako herrialdeetan ere komunak diren egitura arazo berberak ditu. Gainera, Estatu Batuetako neurri protekzionistek eta Ormuzeko itsasarteko igarobidea ixtearen ondoriozko energia-prezioen gorakada handiak larriagotu egin ditu arazo horiek.

ESKAINTZAREN ALDAGIAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2024	2025	2025				2026
			I	II	III	IV	I
BPG erreala	2,5	2,3	2,1	2,2	2,3	2,4	2,2
Nekazaritza eta arrantza	4,3	-0,6	0,6	-0,4	-1,5	-1,2	-0,7
Industria eta energia	2,0	0,4	0,4	0,1	0,2	0,9	-0,3
- Manufakturen industria	1,7	0,3	0,2	0,0	0,3	0,8	-0,2
Eraikuntza	2,0	3,7	1,7	3,1	5,1	4,9	2,5
Zerbitzuak	2,9	2,8	2,7	2,8	2,9	2,8	2,9
- Merkat., ostalaritza eta garraioa	2,0	3,3	2,9	3,3	3,5	3,2	3,4
- AA. PP., hezkuntza eta osasuna	2,9	2,1	2,0	2,1	2,1	2,1	2,0
- Gainontzeko zerbitzuak	3,5	2,9	2,8	2,7	2,9	3,0	3,1
Balio erantsi gordina	2,6	2,3	2,1	2,1	2,4	2,5	2,1
Ekoizkinen gainerako zerga garbiak	1,6	2,2	2,3	2,4	2,2	2,1	2,2

Iturria: Eustat.

Industriaren portaera bereziki negatiboa izan da, jarduera %0,3 jaitsi baita, eta are nabarmenagoa da hiruhileko arteko alderaketan (-%1,1 industrian eta -%0,9 manufaktura

industrian), esportazioen jardun txarrarekin bat etorriz. Industria Produkzioaren Indizearen arabera, murrizketa horren zati bat bitarteko ondasunen eta ekipo-ondasunen portaerak eragin du, baita urtarrilean eta otsailean ere, eta, beraz, ezin zaio soilik egotzi prezio energetikoen igoerari edo Ekialde Hurbileko gatazkak eragindako tentsioei. Ildo beretik, industria-klimaren indizeak ohiko tonu ezkorrrari eutsi zion lehen hiruhilekoan, baina, IPIren kasuan bezala, balio positiboa izan zuen apirilean, eta horrek, oraingoz, ezkortasun maila txikiagoa izatea ahalbidetzen du.

JARDUERAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2024	2025	2025				2026
			I	II	III	IV	I
Industria							
Industria produkzioaren indizea	-0,9	-0,8	-1,8	-1,8	0,0	0,4	-1,2
Negozio zifren indizea	-5,0	-0,6	-0,4	-4,8	2,2	1,1	-0,9
Industria giroaren indizea (maila)	-13,3	-14,4	-13,7	-16,3	-15,6	-13,9	-15,6
Gizarte Segurantzako afiliazioa	0,9	0,3	0,6	0,2	0,2	0,2	-0,2
Eraikuntza							
Eraikuntzaren koiuntura indizea	3,4	8,2	4,4	10,4	12,0	6,3	0,7
Etxebizitza berriak eraikit. oniritziak	3,3	-0,3	-34,2	39,1	18,2	-4,1	-5,1*
Etxebizitzen salerosketak	12,0	15,0	27,2	23,8	4,6	8,1	-1,3
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-0,1	1,9	1,1	1,9	2,0	2,5	1,2
Zerbitzuak							
Merkataritza salmenten indizea	0,6	1,3	1,3	0,5	2,7	1,0	2,4
Merkatuko beste zerbitzu batzuen	2,2	2,3	3,9	1,0	2,9	1,5	1,1
Negozio zifren indizea	0,7	6,0	7,1	5,2	5,7	6,3	7,1
Hegazkinen bidezko bidaiariak	5,4	4,3	1,6	6,4	1,2	8,0	6,6
Hoteletan igarotako gaualdiak	3,4	3,6	0,5	8,8	1,9	2,5	-0,3
Gizarte Segurantzako afiliazioa	2,0	1,7	1,8	1,8	1,7	1,6	1,7

Iturria: Ekonomia Zuzendaritzak egina, Eustat, INE, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerio, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa, Gizarte Segurantza eta AENaren datuetan oinarrituta.

Bestalde, eraikuntzak %1,5eko beherakada izan du aurreko hiruhilekoaren aldean, eta aurreratutakoa baino moteltze handiagoa erakusten du, nahiz eta urte arteko tasak gora egin duen (%2,5). Eraikuntzaren Koiunturako Indizeak aurreratu zuen produkzioa gelditu egin zela urteko lehen hiruhilekoan, batez ere ingeniaritza zibilaren jardueragatik (-%5,2) eraikuntzaren

aldean (%3,4), nahiz eta azken hori ere moteltzen ari den iazko hazkunde-erritmoarekin alderatuta. Obra amaierako ziurtagirien eta salerosketen datuek dinamika hori berresten dute, gainera martxotik eraikuntzaren kostuek gorakada handia izan dute (%6,4 martxoan eta %7apirilean).

Eskaintzaren aldetik, zerbitzuak dira euskal ekonomiaren hazkundearen euskarri nagusia, %2,9ko hazkundearekin eta aldaketa gutxirekin azken datuetan ikusten zenarekin alderatuta. Indar nabarmena ikusten da merkataritza, ostalaritza eta garraioa (%3,4) eta gainerako zerbitzuak (%3,1) taldeetan, sektore publikoari lotuagoak dauden jarduerak bilakaera neurritsuagoa dute (%2,0).


Txikizkako Merkataritzaren Indizea %3,3 hazi da eta aurreko hiruhilekoetako dinamikari eutsi dio eta oraingoz ez da antzeman inflazioak martxoan izan duen gorakadaren ondoriorik. Era berean, Merkaturako Beste Zerbitzu Batzuen Indizean ostalaritzaren une ona nabarmentzen da; gainera, turismoari dagokionez, euskal aireportuetatik bidaiatutako pertsona kopuruak gora egiten jarraitzen du, nahiz eta hoteletan igarotako gaualdiak jaitsi. Garraioan eta biltegiatzean izandako aurrerapenak apalagoak dira, eta, dinamikak dezelerazio txiki bat adierazten bazuen ere, erregaien garestitzearen eragin handipean egoteak datozen hiruhilekoetan izango duten bilakaera baldintzatuko du.

Lan merkatuak euskal ekonomiaren une ona baliatzen jarraitzen du. Eustaten hiruhilekoko kontuen arabera, 2026ko lehen hiruhilekoan, lanaldi osoko lanpostu baliokideak %1,3 igo ziren urte batetik bestera, aurreko bi hiruhilekoetan baino hamarren bat gutxiago bakarrik. Hazkunde honi esker 12.400 enplegu garbi baino gehiago sortu dira, horrela, 2025. urtearen amaieran lortutako mugarria finkatuz, euskal ekonomia milioi bat enplegutik gora baitago berriro. Orain 1.007.000 enplegu daude hiruhileko honetan eta aurrekoaren aldean 2.500 enplegu inguru irabazi ondoren serie osoko zifrarik altuena lortu da.


Hazkundera zerbitzuetatik dator batez ere, 12.133 enplegu gehitu baitzituzten %1,7ko urte arteko aldakuntza izanik. Eraikuntzak ere ekarpen positiboa egin zuen: %1,2 eta 712 enplegu gehiago. Industriak, aldiz, atzerakada txiki bat izan zuen. Enplegua %0,2 murriztu zen, hau da, 387 lanpostu gutxiago. Sektoreak 200.000 enplegu baino gehixeago mantentzen ditu, 2008-2009ko krisiaren aurreko mailetatik urrun oraindik. Hainbat hiruhileko egonkor egon ondoren, aurrerapen oso neurritsuekin, doikuntza hori urte arteko lehen jaitsiera da 2021aren hasieratik. Jaitsiera honen inpaktua mugatua da eta ez du aldatzen sendotasuna erakusten jarraitzen duen lan merkatuaren irudi orokorra.

Enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Kontu ekonomikoak



Afiliazioa



Iturria: Eustat eta Gizarte Segurantzak.

Enplegu berria zerbitzuetan kontzentratzen denez emakumeen lan merkatuan sartzea bultzatu du aurreko hiruhilekoetan gertatu izan de bezala, emakumeen enplegua zerbitzuetan kontzentratzen bait da. BJaren arabera, 2026ko lehen hiruhilekoan okupazioa %1,9 hazi zen urte batetik bestera aurreko urteko lehen hiruhilekoaren %1,0aren aldean. Emakumeen kasuan, igoera %2,6koa izan zen, hau da, 12.600 okupatu berri. Ondorioz, emakumeen okupazio-tasa (16-64 urte artean) %68,5etik %69,1era igo zen, baina gizonezkoena (%73,9) baino 4,8 puntu beherago dago oraindik.

Aldi berean, biztanleria aktiboak intentsitate handiagoz egin zuen gora emakumeen artean, 12.000 gehiagorekin eta 5.400 ingururekin gizonen kasuan. Bestalde, langabetuen kopurua 1.300 pertsonatan murriztu zen, bi sexuen artean antzera banatuta. Biztanleria aktiboaren hazkundearen ondorioz, batez ere emakumeena, eta langabeziaren jaitsieraren ondorioz, langabezia-tasa osoa %6,7 izan zen, hau da, 2025eko lehen hiruhilekoan baino hiru hamarren gutxiago (%7,0). Sexuaren arabera konbergentzia ere aurrera egin da: emakumeen langabezia tasa %7,2tik %6,9ra jaitsi da (-0,3 pp); gizonena, berriz, %6,8tik %6,6ra jaitsi da (-0,2 pp), eta aldea lau hamarrenetik hiru hamarrenera jaitsi da.

Gizarte Segurantzako afiliazioaren arabera, enpleguak gora egiten jarraitu zuen lehen hiruhilekoan, urte arteko %1,0ko erritmoan. Datu berrienek dinamika ona mantentzen dela baieztatzen dute, apirilean %1,1eko eta maiatzean %1,3ko aurrerapenekin. Sexuaren arabera, aldeak txikiak dira: lehen hiruhilekoan afiliazioa %1,1 inguru hazi zen gizonen artean eta %1,0 emakumeen artean. 2025ean dinamismo handiagoa erakutsi zuten emakumeek.

BPGaren hazkundeak (%2,2) eta enpleguaren hazkundeak (%1,3) lan faktorearen itxurazko produktibitatearen %0,9ko irabazia ekarri dute, 2025eko batez bestekoa (%0,6) baino hiru hamarren gehiago eta balio historikotik oso gertu (%1,0). Arloka, zerbitzuek eta eraikuntzak produktibitate handiak lortu zituzten, %1,2 eta %1,3, hurrenez hurren. Aitzitik, industriak ez zuen lagundu, lan faktorearen erabilera %0,2 murriztu baitzen, produkzioaren %0,3ko jaitsieraren testuinguruan, 2025eko lehen hiruhilekoaren aldean.

Barne eta kanpo eskaria

Aipatu bezala, 2026ko lehen hiruhilekoan EAEko ekonomia %2,2 hazi zen urte arteko tasetan, aurreko erregistroan baino bi hamarren gutxiago, baina hiruhileko arteko tasetan (%0,5) erritmoari eutsi zion. Eskariaren ikuspegitik, hazkundea barne eskarian oinarritu zen nagusiki, eta berriz ere intentsitatea handitu zuen %3,5era arte, jardueraren dinamismoari eutsiz. Bultzada horri esker, kanpo sektorearen narriadura handiagoa konpentsatu ahal izan zen, eta horren ekarpen negatiboak portzentaje puntua gainditu zuen (-1,3 pp), Europako eskariaren ahultasunak eta tentsio geopolitikoen gorakadak markatutako nazioarteko testuinguru kaltegarriagoan.

ESKARIAREN ALDAGAIAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2024	2025	2025				2026
			I	II	III	IV	I
BPG erreala	2,5	2,3	2,1	2,2	2,3	2,4	2,2
Gastua azken kontsumoan	2,8	2,5	2,4	2,2	2,7	2,6	3,0
- Familien gastua kontsumoan	2,5	2,7	2,6	2,8	2,9	2,6	2,7
- Adminis. gastua kontsumoan	3,5	1,7	1,9	0,3	2,1	2,3	4,1
Kapital eraketa gordina	2,7	4,0	2,3	3,5	4,9	5,2	4,8
- Ekipamendu ondasunak	2,4	4,3	3,0	4,0	4,8	5,2	5,5
- Gainontzeko inbertsioa	2,9	3,8	1,8	3,2	4,9	5,2	4,3
Barne eskaria	2,8	2,8	2,4	2,5	3,2	3,2	3,5
Esportazioak	0,1	0,4	2,0	0,8	-1,8	0,6	-1,4
Inportazioak	0,4	1,2	2,4	1,3	-0,5	1,8	0,5

Iturria: Eustat.

Barne eskariaren barruan, familien kontsumoak hazkundearen euskarri nagusia izaten jarraitu zuen, urte arteko %2,7ko aurrerapenarekin, 2025eko itxieran erregistratutakoa baino hamarren bat gehiago, eta urte horretan ikusitako batez besteko erritmoarekin bat etorriz. Portaera horrek gastu iraunkorreko dinamika erakusten du, aurreko hiruhilekoetakoaren antzekoa, martxoan inflazioak gora egin duen arren.

Kapital eraketa gordinak, bestalde, hazkundera ere esanguratsua izan zuen urte arteko terminoetan, %4,8ko aurrerapenarekin, ekipo-ondasunetan egindako inbertsioan (%5,5) beste osagaietan (%4,3) baino gehiago oinarrituta. Hala ere, hiruhileko arteko hazkunde murrizak, %0,3ra mugatuta, dinamismo hori, hein handi batean, oinarritzko efektu bati erantzuten diola iradokitzen du, eta, aldi berean, inbertsioaren ibilbidean inflexioa egon daitekeela adierazten du, Ekialde Hurbileko gerrari lotutako ziurgabetasunaren gorakadak baldintzatuta.

KONTSUMO ETA INBERTSIOAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak							
	2024	2025	2025				2026
			I	II	III	IV	I
Kontsumoa							
Azalera eta kate handietako salmentak	0,6	0,9	-0,3	2,1	0,4	1,4	0,9
Txikizkako merkataritza indizea	2,8	5,3	4,5	5,6	6,0	5,0	5,2
Kontsumo ondasunen ekoizpena	-0,7	-0,5	-0,6	0,1	1,8	-3,9	-3,7
Kontsumo ondasunen inportazioa	-4,0	6,8	15,0	2,7	11,1	-1,3	-8,0
Turismoen matrikulazioa	5,9	18,5	8,5	29,1	29,0	9,3	9,4
Inbertsioa							
Ekipo ondasunen ekoizpena	-1,2	1,2	0,0	-1,7	2,6	4,2	0,9
Ekipo ondasunen inportazioa	-0,6	11,0	12,3	8,4	8,3	14,6	25,9
Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa	0,1	4,6	-0,1	7,4	11,3	1,0	2,6
Etxebizitza berriak eraikitzeko oniritziak	-1,0	-21,6	-27,6	24,1	-42,1	-26,2	--
Lizitazio ofiziala	51,5	15,3	40,8	-2,6	88,6	-12,5	-53,4

Iturria: Ekonomia Zuzendaritzak egina, Eustat, Aduana, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa, Seopan eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Testuinguru horretan, kontsumo publikoa hazkundearen intentsitateagatik nabarmendu zen, urte arteko %4,1eko igoerarekin eta %2,1ekoarekin aurreko hiruhilekoaren aldean. Bilakaera horren arrazoiak, neurri batean, langile gastuaren hazkunde handia da; izan ere, Eusko

Jaurlaritzaren eta foru aldundien aurrekontu betearazpenaren arabera, %21 hazi zen aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, eta igoera hori EAEko administrazioko langileen gehikuntzari lotuta dago partzialki.

Kanpoko saldoari dagokionez, kontu ekonomikoek atzerrira egindako ondasun eta zerbitzuen esportazioen (Estatuko gainerako tokiak eta atzerrikoak) %1,4ko murrizketa zenbatetsi dute; inportazioak, berriz, %0,5 hazi dira, bi magnitudeak termino konstanteetan. Beraz, ekarpen negatiboa izan da, 1,3 ehuneko-puntukoa, 2022ko erdialdetik izandako handienetakoa. Aldakuntza tasa horietatik eratorritako guztizko zenbatekoak 16.945 milioi eurokoak dira lehenengoentzat eta 17.151 milioi eurokoak azkenentzat. Bi zifren arteko aldea 206 milioi eurokoa baino ez da, saldo negatibo nahiko txikia, aipatutako zenbatekoak kontuan hartuta.

Esportazio guztien zati handi bat atzerrira bideratutako ondasunen salmentari zegokion (zerbitzuak izan ezik), 7.573 milioi euro, Eustatek argitaratutako datuen arabera. Zifra horrek %0,9ko jaitsiera dakar aurreko urteko aldi beraren aldean, nahiz eta aurreko hiruhilekoetan erregistratutakoa baino apalagoa izan; horien artean 2025eko hirugarren hiruhilekoan ikusitako %9,8ko murrizketa nabarmentzen da. Bestalde, atzerritik etorritako ondasunen inportazioak 7.101 milioi eurokoak izan ziren, hau da, aurreko urtearen aldean %3,0ko hazkundera.

ESPORTAZIOAK PRODUKTUEN ARABERA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2024	2025	2025		2026		
			III	IV	I tasa	I Ekarp.	I Mila €
GUZTIRA	-5,1	-3,6	-9,8	-3,7	-0,9	-0,9	7.573.465
Energia	-1,4	-33,3	-40,3	-0,3	32,6	1,1	350.495
Ez-energetikoak	-5,4	-1,6	-7,6	-3,9	-2,1	-2,0	7.222.970
Nekazaritzakoak	-21,2	13,5	29,1	6,0	1,7	0,1	461.881
Kimikoak	-7,1	8,1	33,9	18,1	12,9	0,3	253.360
Plastikoak eta kautxua	-19,9	-18,1	-18,7	-24,0	-7,5	-0,5	437.607
Papera	4,1	-14,0	-23,5	-9,1	-13,2	-0,3	158.959
Metal arruntak	-2,9	-6,1	-11,8	-6,1	2,6	0,4	1.676.325
Makinak eta aparatuak	11,6	0,0	-2,0	-0,7	-2,1	-0,4	1.638.504
Garraio materiala	-10,7	2,0	-13,9	-4,9	-2,7	-0,8	2.145.373
Gainontzekoak	-8,5	-5,0	-16,3	-4,4	-12,7	-0,9	423.156

Iturria: Eustat.

Osaerari dagokionez, esportazioen bilakaera, funtsean, sektore traktore nagusietako biren portaerak azaltzen du: garraio materiala (-%2,7) eta makinak eta aparatuak (-%2,1). Hiruhileko osoan jaitsierak izan dituzte eta narriaduraren zatirik handiena metatu dute, guztizkoari ehuneko 1,2 puntu kenduz. Horien aldean, segmentu batzuek dinamismo handiagoa erakutsi zuten, bereziki produktu energetikoei, %32,6ko hazkundearekin, eta horien ekarpen positiboak (1,1 pp) aurrekoen beherakada konpentsatu zuen ia. Neurri txikiagoan, produktu kimikoei (%12,9) eta metal arruntei (%2,6) ere lagundu zuten aurrera egiten, baina pisu handieneko taldeen atzerakada neutralizatzeko gaitasun mugatuarekin. Gainerako partidei, berriz, ekarpen negatiboa izan zuten, eta nabarmentzekoa da beste manufaktura batzuen beherakada handia eta plastikoaren eta kautxuaren jaitsiera (-%7,5), industriaren adar jakin batzuen lurrunkortasuna eta ahultasuna islatzen jarraitzen duena.

ESPORTAZIOEN HELMUGA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2024	2025	2025			2026	
			II	III	IV	I	I
GUZTIRA	-5,1	-3,6	-2,7	-9,8	-3,7	-0,9	7.573.465
ELGA	-6,4	-5,4	-6,7	-9,7	-3,2	2,6	6.524.211
Eurogunea	-6,5	-5,1	-5,2	-9,1	-2,6	4,5	4.222.329
Alemania	-13,0	-0,7	3,3	-2,9	-4,5	2,6	1.163.041
Frantzia	-0,4	-10,1	-10,3	-16,6	-3,3	1,6	1.215.561
Italia	-1,5	-0,2	-13,2	13,8	3,9	0,5	469.693
Erresuma Batua	6,0	-9,7	-20,3	-6,9	-5,7	6,8	526.645
AEB	-27,2	-11,7	-7,6	-21,8	-8,2	-5,9	423.270
ELGAtik kanpokoak	2,3	6,0	20,1	-10,6	-5,9	-18,5	1.049.254

Iturria: Eustat.

Esportazioen norako geografikoak agerian utzi zuen merkatu tradizionalak indartu egin zirela ziurgabetasun handiko testuinguru batean, hainbat hiruhilekotan merkatu horiek pisu erlatiboa galdu ondoren ELGAkoak ez diren merkatuen mesedetan. Ildo horretan, ELGAra bideratutako salmentak % 2,6 hazi ziren, eta kuota osoaren %86,1era igo zen, azken bi urteetako erregistrorik handiena. Bereziki, euroaren eremurako esportazioak %4,5 gehitu ziren, guztizkoaren %55,8ra iritsiz. Aitzitik, ELGAtik kanpoko herrialdeetara bideratutako esportazioek beherakada oso handia izan zuten (-%18,5), eta horrek emaitza agregatua baldintzatu zuen.

Euroaren eremuari dagokionez, hobekuntza nabarmena ikusi zen esportazio talde nagusietan, bereziki euskal industria profilarren ezaugarrietan. Ekipo-ondasunen esportazioak -garraio materiala (%5,6) eta makinak eta aparatuak (%4,2)- berriro hazi ziren; metal arruntek eta beren manufakturrek, berriz, aurreko hiruhilekoan hasitako susperraldia sendotu zuten, %13,0ko gehikuntzarekin. Hala ere, euroaren eremurako esportazio guztien hazkundea (%4,5), neurri handi batean, garrantzi erlatibo txikiagoko osagai baten portaerak baldintzatu zuen. Zehazki, erregai mineralen esportazioen hazkunde handia nabarmendu zen (%44,4); izan ere, guztizkoan partaidetza txikia izan arren (%7,9), arlo horretako hazkundearen zatirik handiena azaldu zuten.

Eredu hori herrialdeen araberako analisisan ere ikusi zen. Alemania eta Frantzia, herrialdeka merkatu helmuga nagusiak, %2,6 eta %1,6 hazi ziren, hurrenez hurren, eta ehuneko 0,4 eta 0,2 puntu ekarri zituzten esportazioen guztizkora; Belgikak eta Portugalek, berriz, 0,5 puntu. Kasu guztietan, hazkundea, neurri handi batean, produktu energetikoen esportazioetan oinarritu zen: Frantziara, esportatutako guztizkoaren ehuneko 2,2 puntu ekarri zituzten, ibilgailu automobilen 0,5 punturekin batera; Alemanian, aldiz, energiaren ekarpena 1,1 puntukoa izan zen, eta automobilena 1,5 puntukoa. Aldi berean, ahulezia mantendu zen zenbait segmentu industrialetan, kautxua kasu, bi merkatuetan jaitsierak izaten jarraitu zuena.

Horren guztiaren ondorioz, Frantzia izan zen helburu nagusia, %16,1eko kuotarekin eta 1.215 milioi eurotik gorako salmentekin; ondoren, Alemania (%15,4 eta 1.163 milioi). Ondoren, Erresuma Batua (%7,0) eta Italia (%6,2). Bestalde, Estatu Batuek, %5,6ko kuotarekin eta 423 milioi euroko esportazioekin, %5,9ko jaitsiera izan zuten, merkatu horretan azken hiruhilekoetan ikusitako ahuleziaren ildotik.

Aitzitik, ELGAkoak ez diren ekonomietara bideratutako esportazioek atzerakada nabarmena izan zuten. Bereziki, Txinarako salmenten jaitsierak berez 0,6 puntu kendu zizkion hazkundeari, eta Indiak eta Argentinak 0,2 puntu kendu zizkieten bakoitzak esportazioen hazkundeari, merkatu horietan trakzio galera bat islatuz, helmuga aurreratuen protagonismo berrituaren aldean.

Ondasunen inportazioei dagokienez, %3,0 hazi ziren lehen hiruhilekoan, eta 7.101 milioi eurora iritsi ziren. Aurrerapena produktu energetikoen erosketan oinarritu zen, %0,4ko hazkundearekin, eta, batez ere, ez-energetikoetan, %3,8ko hazkundearekin. Ekarpenera dagokionez, erregai mineralek hamarren bat baino ez zioten eman hazkunde osoari, eta gainerako produktuek, berriz, aurrerapen ia osoa bildu zuten.

Taldeka, produktu kimikoen dinamismoa nabarmendu zen, %15,3 hazi baitziren eta ia puntu bat eman baitzioten inportazio guztiei, bai eta makina eta aparatu elektrikoek ere, %24,1eko hazkundearekin 1,7 punturekin. Aitzitik, metal arruntek, pisuari dagokionez hirugarren taldea

izanik, 1,8 puntu galdu zituzten, batez ere burdinaren eta aluminioaren galdaketaren inportazioen jaitsieragatik. Ibilgailu automobilen erosketak ere nabarmen jaitsi ziren (-%15,9), 1,2 puntuko ekarpen negatiboarekin.

Geografiaren ikuspegitik, eredia heterogeneoagoa izan zen. ELGAtik etorritako inportazioak %8,5 hazi ziren, baina igoera hori ez zen oinarritu Europako merkatuan. Eurogunean, erosketek ez zuten ia etenik izan (-%0,1), eta herrialdeka portaera desberdina izan zuten: Italiatik etorritako inportazioak bakarrik hazi ziren (%11,0); bazkide tradizional nagusiei egindako erosketak, berriz, murriztu egin ziren, Frantzian %5,9 eta Alemanian %0,1 jaitsi baitziren. ELGAren barruko hazkundeak, beraz, merkatu zehatzetan eta unean uneko faktoreetan izan zuen jatorria, eta Japonia nabarmendu behar da, %668,6ko igoera aparta izan baitzuen optikako tresnen erosketarekin lotuta, eta hazkundeari 4,9 puntu inguruko ekarpena egin baitzuen, baita Mexiko ere, zeina 0,6 punturekin lagundu baitzuen energiaren erosketak bultzatuta. Aitzitik, ELGAkoak ez diren herrialdeetatik etorritako inportazioek behera egin zuten (-%7,7), esportazioetan ikusitako bilakaeraren ildotik. Beherakada hori, neurri handi batean, Brasilera (-%63,3) eta Txinara (-%8,6) egindako erosketen uzkurdurak azaltzen du, merkatu horien ahultasuna islatuz.

INPORTAZIOEN JATORRIA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2024	2025	2025			2026	
			II	III	IV	I	I
GUZTIRA	0,9	-1,6	-8,2	-2,1	-1,1	3,0	7.100.590
ELGA	-1,9	1,3	0,9	-0,8	4,6	8,5	4.943.113
Eurogunea	-0,9	1,7	2,0	-1,2	2,0	-0,1	3.100.442
Alemania	1,1	3,2	11,8	-5,3	-5,6	-1,1	1.061.276
Frantzia	0,2	1,0	0,2	-3,6	0,2	-5,9	545.029
Italia	-1,9	-0,6	-4,7	6,3	5,9	11,0	351.572
Erresuma Batua	13,5	8,8	46,2	-9,2	2,9	-4,4	133.938
AEB	-13,5	2,6	22,1	4,7	25,7	-1,9	362.203
ELGAtik kanpokoak	7,0	-7,3	-23,7	-4,7	-13,6	-7,7	2.157.477

Iturria: Eustat.

Esportazioen eta inportazioen konbinazioak atzerriarekiko 473 milioi euroko merkataritza saldoa uzten du, Euskadiren aldekoa. Emaidza hori ondasun ez-energetikoetan 1.714 milioi

euroko superabita izateagatik lortu zen, eta defizit energetikoa 1.241 milioi eurora iritsi zen. Ohi bezala, euskal ekonomiak saldo positiboa izan zuen herrialde garatuen multzoarekin, eta negatiboa garapen bidean zeuden herrialdeekin. Lehenengo kasuan 1.581 milioi eurora iritsi zen, eta bigarrenean defizita 1.108 milioi eurokoa izan zen. Herrialdeka, Frantziarekiko merkataritza harremanetan lortzen den superabit handia nabarmentzen da (671 milioi), Alemaniari dagokionarekin alderatuta (102 milioi).

Prezioak, soldatak eta kostuak

Prezioen adierazleek bilakaera neurritsua eta koherentea izan dute 2026ko lehen hiruhilekoan, nahiz eta KPIren ondorengo gorakadak deflatoreek oraindik jasotzen ez dituzten, daturik ez dagoelako. BPGaren deflaktorea %2,6an mantendu zen, bai 2025ean, bai 2026ko lehen hiruhilekoan. Portaera hori gorabehera, aldeak ikusten dira osagaien arabera. Kontsumoaren deflatoreak nolabaiteko moderazioa erakusten du, %3,1etik %2,8ra igaro baita 2025eko amaieratik 2026ko lehen hiruhilekora, eta horrek familien gastuaren nolabaiteko normalizazio txiki bat isla dezake. Aitzitik, eraikuntzan %3,5erainoko garestitzea gertatu da, eskari dinamikoagatik eta eskulan faltagatik. Industriako deflatorearen bilakaera ere nabarmentzekoa da, %1,5etik %0,2ra jaitsi baita. Beherakada hori energia prezioen jaitsierak eta kanpo eskariaren ahuleziak eragin dute.

Kontsumoko prezioei dagokienez, KPIa apur bat jaitsi zen 2025ean 2024ren aldean, eta %3,0 an amaitu zuen urtea (%3,1 2024an). 2026ko lehen hiruhilekoan beheranzko bide horrekin jarraitu zuen eta %2,7an kokatu zen, batez ere elektrizitatearen prezioak egonkortu egin zirelako, urte arteko terminoetan hazten jarraitu baitzuten, baina 2025eko amaieran ikusitakoa baino erritmo txikiagoan. Hala ere, apirilean eta maiatzean indizeak %3,2raino egin zuen gora, Iranen aurkako erasoen ondorioz erregaien garestitzeak eta zerbitzuen prezioen tentsioen mantentzeak bultzatuta.

Faktore horiek partzialki konpentsatu zituzten Gobernuak hartutako euste neurriak eta, eta apirilean eta maiatzean urte arteko terminoetan gertatu zen elektrizitatearen merkatzeak. Maiatzean neurri horiek indarrean jarraitzen zuten; hala ere, ekainean gasari eta elektrizitateari buruzkoak amaituko dira, eta uztailan erregaienak. Horrek ziurgabetasuna dakar datozen hilabeteetako inflazioaren bilakaerari buruz. Testuinguru honetan, itsasarte berritzaileak tentsioak arintzen lagun lezake: Brent upelaren prezioa, 126 dolarrera iritsi zena gatazkan zehar, 78 dolarren ingurura arte moteldu da, ekainaren 14an Estatu Batuen eta Iranen arteko bake akordioaren ostean.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2024	2025	2025	2026		Ekarpena
			IV	I	Maiatza	
Inflazio osoa (%100)	3,1	3,0	3,1	2,7	3,2	3,2
Azpiko inflazioa (%85,3)	3,2	2,6	2,5	2,7	2,9	2,5
- Elikagai landuak (%14,1)	4,6	2,1	2,2	3,0	3,0	0,4
- Industria ondasunak (%18,5)	1,2	0,9	0,3	-0,1	0,0	0,0
- Zerbitzuak (%52,7)	3,5	3,4	3,5	3,7	4,0	2,1
Hondar inflazioa (%14,7)	2,6	5,2	6,2	2,7	4,4	0,7
- Landu gabeko elikagaiak (%6,8)	4,0	6,8	7,2	6,2	4,1	0,3
- Energia (%7,9)	1,0	4,1	5,4	0,3	4,5	0,4

Iturria: INE.

Euroguneko inflazioari dagokionez, honek 2025a %2,5ean hasi zuen, eta motelduz joan zen, urtearen bigarren erdian %2 inguruan egonkortu arte. 2026ko urtarrilean eta otsailean maila horretatik behera kokatu zen. Iranen gatazkaren ondorioz martxotik aurrera igo egin zen eta maiatzean %3,2rainoko gorakada izan zuen, Euskadin inflazioarekin gertatu bezala. Testuinguru horretan, Europako Banku Zentralak ehuneko 0,25 puntu igo zituen ekainean bere interes-tasa ofizialak, tentsio geopolitikoei eta energiaren garestitzeari lotutako inflazioaren goranzko arriskuei eusteko.

Euskadiko azpiko inflazioak gora egin zuen pixka bat 2026an, 2025ean izandako moteltzearen ondoren; %2,7koa izan zen lehen hiruhilekoan eta %2,9koa maiatzean. Bilakaera hori zerbitzuen dinamismoari zor zaio batez ere; izan ere, zerbitzuen prezioen igoera %4,0ra iritsi zen eta inflazioaren zatirik handiena azaltzen dute maiatzean. Industria ondasunek, berriz, oso tasa apalak izan zituzten, eta elikagai landuak %3,0 inguruan egonkortu ziren.

Hondar inflazioak, bestalde, moteldu egin zen 2026. urtearen hasieran, baina nabarmen egin zuen gora, maiatzean %4,4ra iritsi arte. Igoera hori batez ere energiak (erregaiak) eragin du; izan ere, tasa ia nuluak izatetik %4,5 haztera igaro da, eta, neurri txikiagoan, elikagai ez landuek, moteldu arren, ekarpen nabarmena egiten jarraitzen baitute.

EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2024	2025	2025			2026	
			II	III	IV	I	Maiatza
Indize orokorra	3,1	3,0	2,6	3,0	3,1	2,7	3,2
Janariak eta alkohol gabeko edariak	4,5	3,4	3,4	3,1	3,8	4,0	3,4
Edari alkoholdunak eta tabakoa	4,3	3,9	3,9	4,3	3,4	4,4	3,1
Jantziak eta oinetakoak	1,0	0,4	0,6	0,7	-1,0	-2,7	-3,7
Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa	3,7	6,5	4,3	6,8	5,9	1,8	0,6
Etxeko hornidura	1,5	1,5	1,7	1,6	1,4	0,9	0,9
Medikuntza	2,7	2,3	2,1	2,4	2,4	1,9	1,7
Garraioa	0,9	0,7	-1,0	1,2	2,4	1,9	6,8
Komunikazioak	-0,1	0,3	0,5	-0,4	0,4	-0,7	-0,3
Aisia eta kultura	2,9	1,4	2,4	1,3	0,3	1,8	2,4
Irakaskuntza	2,3	2,4	2,4	2,6	2,2	2,3	2,1
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	4,3	4,3	4,1	4,2	4,8	5,2	5,1
Aseguruak eta finantza-zerbitzuak	4,8	5,2	5,3	5,0	5,0	4,2	4,7
Zaintza perts. Babes soz. eta besteak	5,9	3,1	3,7	2,9	2,4	2,1	2,7

Iturria: INE.

Taldeka, nabarmentzekoa da garraioak gorakada handia izan duela maiatzean, urte arteko %6,8ko tasa lortu baitu, eta inflazio-eragile nagusietako bat da, erregaien garestitzearen testuinguruan. Zerbitzuek ere garestitzea mantentzen dute, bereziki jatetxe eta hoteletan (%5,1) eta aseguru eta finantza zerbitzuetan (%4,7), osagai honen presioen iraunkortasuna islatuz. Etxebizitza taldeak, aldiz, 2025ean tasa altuak izatetik, maiatzean %0,6 bakarrik garestitzera pasatu zen, energia prezioen bilakaera desberdin horrekin bat etorritik, elektrizitatea eta gasaren merkatzeek, erregaien garestitzea neurri batean konpentsatu baitzuten. Aitzitik, talde batzuek bilakaera neurritsua edo negatiboa izan dute, bereziki jantziak eta oinetakoak (-%3,7), informazioa eta komunikazioak (-%0,3). Horiei gehitu behar zaizkie hazkunde moderatuak izan dituzten beste partida batzuk, hala nola osasuna (%1,7), irakaskuntza (%2,1) edo altzariak eta etxeko gaiak (%0,9). Horrek lagundu egiten du inflazio presioak apur bat murrizten indize osoan.

Industriako prezioei dagokienez, 2025eko azken zatian, IPRI balio negatiboetara itzuli zen (-%0,8 abenduan), eta joera hori areagotu egin zen 2026ko hasieran (-%2,5 urtarrilean eta -%1,6 otsailean), energia-prezioen beherakada handiaren ondorioz; -%11,4, -%11,1 eta -%8,9, hurrenez hurren. Martxotik aurrera bat-bateko aldaketa bat ikusi daiteke eta IPRI eremu

positibora itzultzen da (%1,9) eta apirilean eta maiatzean %5,1eraino areagotzen da, ia soilik energiaren garestitze handiak bultzatuta. Zehazki energiaren prezioa, %27,9 hazi zen apirilean eta %31,0 maiatzean. Koke-fabriketan eta fintzeetan aurrerapen handiak izanez maiatzean, %42,0ra iritsi arte.

Helburu ekonomikoaren arabera, eredu hori argi eta garbi errepikatzen da. Urte hasierako energia merkatzea tarteko ondasunetan eta kontsumo-ondasunetan islatu zen. Ondasun horiek dezelerazio argia izan zuten eta zenbait taldetan murriztu egin ziren. Ekipo ondasunek bilakaera egonkorragoa izan dute, eta tasa positiboetan mantendu dira, nahiz eta otsailetik maiatzera bitarteko aldiaren moderatuak izan diren. Kontsumo ondasunek, berriz, portaera ahulagoa izan dute: jaitsi egin dira otsailean (%-0,8) apirilean (%-1,4) eta maiatzean (%-2,4), batez ere osagai ez iraunkorren. Oro har, bigarren hiruhilekoari hasiera emateko, IPRI orokorrak gorakada handia izan du, batez ere energiaren garestitzean oinarrituta; gainerako osagaiek, berriz, bilakaera apalagoa izan dute.

Hitzarmen kolektiboei dagokienez, 2026ko martxoa amaitzean, Euskadiko langileen %47,1ek indarrean zituen hitzarmenak; %48,5, aldiz, luzapen egoeran zeuden, eta %4,4, berriz, bertan behera geratu ziren. Nabarmendu behar da luzatutako hitzarmenen artean eragin handiko batzuk daudela, hala nola Bizkaiko eta Arabako siderometalurgia industriakoak, guztira 50.000 pertsonari eragiten dietenak. Urteko lehen hiruhilekoan, Euskadin 53 hitzarmen berri sinatu ziren, 21.000 langile ingururi eraginez.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2022	2023	2024	2025	2026 (*)
Indarrean dauden hitzarmenak (guztira)	4,1	4,2	3,4	3,3	3,1
- Sektoreko hitzarmenak	3,9	4,3	3,4	3,4	3,2
- Enpresako hitzarmenak	4,7	4,1	3,2	3,2	2,6
Urtean erregistrat. hitzarmenak (guztira)	4,1	4,7	3,6	3,4	3,0

(*) 2026ko martxora arte erregistratutako hitzarmenak

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Euskadin aplikatzekoak diren Estatuko hitzarmenei eta indarrean jarraitzen duten aurreko ekitaldietan sinatutakoei gehituta, lan-akordioak eguneratuta dituzten pertsonak 318.245 dira guztira, luzatutako hitzarmen bidez babestuta dauden 327.962 pertsonen aldean. Bestalde,

Euskadiko hitzarmenek lehen hiruhilekoan KPIa gainetik zeuden soldata-igoerak ezarri zituzten (%3,1 soldata igoerak eta %2,7 KPI), eta horrek erosteko ahalmena pixka bat handitzea ahalbidetu zuen. Hala ere, inflazioa maiztzean egon den gorakada dela eta %3,2 izateraino iritsi denez, soldata igoerak prezioen bilakaerarekin lerrokatzen ari dira.

LAN KOSTUAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2024	2025	2025				2026
			I	II	III	IV	I
Lan kostu guztiak langileko	2,3	3,9	3,8	4,1	3,9	3,8	7,1
- Soldata kostua guztira	2,3	3,8	3,4	3,4	4,1	4,2	8,7
- Bestelako kostuak	2,5	4,2	5,0	0,2	3,3	3,5	5,0
Lan kostu guztiak orduko	2,7	3,3	1,6	7,8	2,5	1,9	8,6
- Soldata kostua guztira	2,6	3,2	1,1	7,1	2,6	2,3	10,2
- Bestelako kostuak	2,9	3,6	2,8	9,8	2,0	0,5	4,5
Adostutako lan orduak	-0,4	0,2	-0,2	0,4	0,1	0,3	0,5
Benetan lan egindako orduak	-0,3	0,4	2,2	-3,5	1,4	1,8	-1,3

Iturria: INE.

Azkenik, lan kostuak dinamika neurritsu batetik azelerazio argi batera igaro dira. Laugarren hiruhilekoan %3,8 hazi ondoren, eta, 2025eko batez bestekoa %3,9an kokatu ondoren, 2026ko lehen hiruhilekoan urte arteko %7,1eko hazkundea izan zuten. Aurreko hiruhilekoetan soldata-kostuen eta bestelako kostuen hazkundek antzeko mailetan mantendu ziren bitartean, lehen hiruhileko honetan guztizko igoera soldata kostuetan oinarritu zen batez ere. Hala ere, portaera horrek ñabardura garrantzitsu bat izan zuen: guztizko soldata kostua %8,7 hazi zen, baina soldata arrunta erritmo txikiagoan hazi zen (%4,6), eta horrek adierazten du azelerazioa, hein handi batean, osagai ez-arruntei (aparteko ordainketak, atzerapenak edo elementu aldakorrak) leporatu behar zaiela. Hala eta guztiz ere, soldata arruntaren hazkundek adierazgarria izaten jarraitu zuen, eta aldi horretako inflazioaren gainetik jarri zen eta horrek erosteko ahalmenaren nolabaiteko handitzea dakar. Gainera, garestitzea askoz ere handiagoa da lan egindako ordu bakoitzeko. 2025 osoan orduko lan-kostuak apal egin zuen gora (%3,3, batez beste), baina 2026ko lehen hiruhilekoan %8,6raino igo zen, neurri handi batean, lan egindako benetako orduen beherakadaren ondorioz.

Arlo publikoa

Zuzeneko zergek portaera positiboa izan zuen urteko lehen bost hilabeteetan, %7,7ko hazkundearekin. Nabarmentzekoa da PFEZren aurrerapena (%6,9), enpleguaren eta soldata-errenten sendotasunak bultzatuta, lanaren atxikipenen dinamismoan islatzen jarraitzen baitu. Sozietateen gaineko zergak %16,5eko igoera izan zuen, neurri batean aurreko urtean bilketa murriztu zuten aparteko faktoreak desagertu zirelako eta enpresen mozkinak bilakaera positiboa izan zutelako. Aitzitik, zuzeneko beste figura batzuek jaitsiera esanguratsuak izan zituzten, hala nola oinordetzak eta dohaintzak (-%10,0) edo ondarearen gaineko zerga (-%31,4), energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zergaren jaitsierarekin batera (-%14,8).

TRIBUTU ITUNDUEN BILAKAERA (urtarrila-abendua)

Mila euro

TRIBUTUAK	Diru bilketa		
	2025	2026	% Ald. 26/25
PFEZ	2.766.129	2.956.946	6,9%
Sozietateen gaineko zerga	433.009	504.249	16,5%
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	86.496	85.375	-1,3%
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	85.856	77.241	-10,0%
Ondarearen gaineko zerga	7.064	4.844	-31,4%
Energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zerga	29.050	24.742	-14,8%
ZUZENKO ZERGAK GUZTIRA	3.407.601	3.671.635	7,7%
BEZ	2.185.379	2.259.895	3,4%
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	95.570	93.608	-2,1%
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	16.331	17.391	6,5%
Garraibide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	10.220	10.439	2,1%
Estatuarekin doikuntzak dituzten zerga bereziak	715.668	724.712	1,3%
Elektrizitatearen gaineko zerga berezia	30.172	24.908	-17,4%
Aseguru sarien gaineko zerga	4.839	4.873	0,7%
Joko jardueren gaineko zergak	53.715	59.581	10,9%
Berotegi efektuko gasen gaineko zergak	4.034	4.833	19,8%
Finantza-transakzioen gaineko zerga	5.026	4.344	-13,6%
Zenbait zerbitzu digitalen gaineko zerga	36.537	48.814	33,6%
Zabortegetan hondakinak uztearen gaineko zerga	7.407	8.125	9,7%
Iraungitako zergak	8.091	8.973	10,9%
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	3.172.988	3.270.495	3,1%
TASAK ETA BESTE. SARRERAK GUZTIRA	49.019	54.691	11,6%
TRIBUTU ITUNDUAK GUZTIRA	6.629.608	6.996.821	5,5%

Iturria: Foru aldundiak.

Zeharkako zergei dagokienez, hazkundera apalagoa izan zen (%3,1), aurreko ekitaldikoa baino nabarmen txikiagoa. BEZaren bilketak %3,4 egin zuen gora, kontsumoa aurten neurritsuagoa izan bait zen iazko ezohiko bultzadaren ondoren. Ondare-eskualdaketetan ere dinamismo txikiagoa ikusi zen (%2,1), higiezin merkatuaren nolabaiteko dezelerazioarekin bat etorritz. Figura dinamikoen artean, finantza-transakzioen gaineko zerga (%33,6), joko-jarduerak (%19,8) eta aseguru-primak (%10,9) nabarmentzen dira. Aitzitik, energiari lotutako hainbat zergek jaitsiera nabarmenak izan zituzten, hala nola elektrizitateak edo gas fluordunek.

Maiatzera arte metatutako datuek bilakaera egonkor samarra erakusten badute ere, garrantzitsua da kontuan hartzea maiatzeko bilketak beherakada nabarmena izan zuela, batez ere BEZean eta zeharkako beste zerga batzuetan. Atzerapen hori ez da ikusten metatutako gutzizkoetan, baina Ormuzeko tentsioen ondoriozko shock energetikoa arintzeko hartutako neurri fiskalen ondorioa da. Horrela, hilabetez hilabete begiratzuz ikusi daitekeen azpiko profila ez da tasa metatuek iradokitzen dutena bezain hedakorra. Oro har, kudeaketa propioko zerga itunduak %5,5 igo ziren maiatzera arte, eta bilakaera positiboa izan zuten, baina ez aurreko ekitaldian bezain indartsua.

Arlo finantzarioa

2026ko martxotik ekainera bitartean aldaketa nabarmena izan zen nazioarteko finantza ingurunean, otsailaren amaieran Ekialde Hurbileko tentsio geopolitikoak gogortu egin zirelako eta, ondorioz, inflazio arriskuak gorantz berrikusi zirelako. Testuinguru berri horrek moneta politikari buruzko igurikimenak aldatu zituen, eta ezegonkortasun gertakariak sortu zituen finantza merkatuen segmentu batzuetan, batez ere martxoan. Hala ere, denbora aurrera egin ahala, merkatuek egokitze gaitasun nabarmena erakutsi zuten, eta egonkortze fase baterantz jo zuten finantza baldintza murriztaileagoak zituen ingurune batean, baina oraindik ere tentsio larriko egoeretatik urrun zeuden.

Testuinguru horretan, banku zentral nagusien jarduna analisiaren erdigunean kokatu zen berriro. Europako Banku Zentralak, hasiera batean, %2,0an mantendu zuen gordailutzeko erraztasun tasa, urte hasieratik jarraitutako zuhurtasun estrategiaren ildotik. Hala ere, inflazio tentsioen gorakadak eta arriskuek gorantz jarraitzeak diru politika pixkanaka gogortzeko itxaropena sendotu zuten, eta ekainean %2,25eraino igo zen. Mugimendu horrek bigarren txandako efektuak saihesteko beharrari erantzun zion, ziurgabetasun handiko eta energia kostuen gorakadako testuinguru batean.

ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK (I)

	2024	2025	2026					
			Urtarr.	Otsail.	Martx.	Apiri.	Maiat.	Ekain (**)
Interes tasa ofizialak (%)								
EBZ (*)	3,0	2,0	2,0	2,0	2,0	2,0	2,0	2,25
Erreserba Federala	4,25-4,5	3,75-3,5	3,75-3,5	3,75-3,5	3,75-3,5	3,75-3,5	3,75-3,5	3,75-3,5
Japoniako Bankua	0,25	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5
Ingalaterrako Bankua	4,75	3,75	3,75	3,75	3,75	3,75	3,75	3,75
Txinako Banku Popul.	3,10	3,0	3,0	3,0	3,0	3,0	3,0	3,0
Brasilgo Banku Zentrala	12,25	15,0	15,0	15,0	14,75	14,5	14,5	14,5
10 urteko zor publikoaren errentagarritasuna								
Alemania	0	0	0	0	0	0	0	0
Espainia	70	43	37	41	50	45	44	47
Grezia	84	62	51	65	87	80	67	66
Portugal	48	30	36	36	41	43	38	36
Italia	116	65	62	63	91	82	74	72
AEB	219	129	140	131	130	134	152	155

(*) Gordailu tasa. (**) Datuak ekainaren 23ra arte.

Iturria: Espainiako Bankua.

Bestalde, Erreserba Federalak interes tasen maila objektiboa %3,5 eta %3,75 artean mantentzea erabaki zuen, nahiz eta komunikazioa argi aldatu. Ildo murriztaileago baterako biraketa tasen eta inflazioaren aurreikuspenen goranzko berrikuspenean islatu zen, eta horrek merkatuak urte amaiera baino lehen balizko igoerak deskontatzera eraman zituen. Espektatiben aldaketa horrek indartu egin zuen dolarretan zeuden aktiboen erakargarritasun erlatiboa.

Gainerako banku zentralak dagokienez, Ingalaterrako Bankuak bere erreferentzia tipoa mantendu zuen, %3,75 inguruko aldaketarik gabe, itxarote jarrera sendotuz hazkunde ahuleko eta inflazio oraindik handiko testuinguru batean. Japoniako Bankuak bere diru politika oraindik oso eroso luzatu zuen, nahiz eta inflazioa sendotuz gero etorkizuneko igoerak espero zituen. Txinan, banku zentralak politika hedakorra aplikatzen jarraitu zuen, bere interes tasetan funtsezko aldaketarik egin gabe, hazkunde ekonomikoari eusteko helburuarekin; Brasilen, berriz, tonuak murriztaileagoa izaten jarraitu zuen, baina tasen erlaxazio txiki batekin aldiaren amaieran.

Zor subiranoaren merkatuan, epe luzerako errentagarritasunen bilakaera neurrizko hazkundeak izan zuen, baita otsailaren amaierako shock geopolitikoaren ondoren ere. Eurogunean, hamar urterako bonu alemaniarren errentagarritasuna otsailaren amaieran %2,6 ingurukoa izatetik ekainean %3 ingurukoa izatera igaro zen, maiatzean maximo puntuala lortu ondoren. Hazkunde hori, hiru hamarren ingurura mugatua, nahiko modu homogeneoan errepikatu zen eskualdeko gainerako ekonomietan, hala nola Espainian edo Italian. Horrek esan nahi du ingurune makroekonomikoari lotutako mugimendu bateratu bat dagoela, finantza baldintzen gogortze txiki batekin bateragarria dena, baina ezegonkortasun gertaerarik eta euroaren eremuaren zatiketa seinalerik sortu gabe.

Bestalde, Estatu Batuetan doikuntza nabarmenxeagoa izan zen, epe luzerako errentagarritasunak ehuneko puntu erdi inguru igo baitziren, tasa handiagoko ingurune baten eta diru politikaren joera murriztaileago baten ildotik.

Testuinguru horretan, euroguneko herrialdeetako arrisku sariak bilakaera egonkorra izan zuten, eta martxoan eta ekainan bitartean gorabehera mugatuak izan zituzten. Espainiaren kasuan, Alemaniarekiko aldea nahiko estua izan zen, 40-50 puntu ingurukoa. Apirilean eta maiatzean gorakada txiki bat bizi zuen, errentagarritasunen gorakadarekin batera, eta ekainean moteldu egin zen. Dinamika horrek, periferiako beste ekonomia batzuetan ikusitakoaren antzekoa, merkatu osoaren mugimenduekin bat datorren bilakaera erakusten du.

Dibisa merkatuetan, euroaren bilakaerak ez ziren hainbeste erantzun muturreko aldakortasun gertaerei, baizik eta diru politiken arteko dibergentziari. AEBetako dolarraren aldean, moneta bakarra 1,146 dolarretik hurbil zegoen maila batean itxi zen, eta horrek balio galera txiki bat ekarri zuen urte osoan, %0,5 ingurukoa. Testuinguru horretan, Erreserba Federalak tonu murriztaileagoa izan zuen, eta dolarrak babes erreferentzia nagusi izaten jarraitu zuen.

Aldiz, Japoniako yenaren aldean, euroa oso modu esanguratsuan garestitu zen, euroko 185 yen ingurura iritsi arte, %10,5etik gorako irabazi metatuarekin, Japonian moneta politika oso eroso baten iraunkortasunaren isla. Libera esterlinaren aldean, berriz, bilakaera askoz egonkorragoa izan zen, euroa 0,865 libera ingurukoa izan baitzen eta garestitze oso mugatua, %1,3 ingurukoa. Txinako yuanaiekiko portaera ahulagoa izan zen, euroak %6tik gorako balio galera izan zuen euroguneko dibisaren aldean. Mugimendu horien guztien ondorioz, euroaren truke tasa efektiboa nahiko egonkor mantendu zen, dolarraren eta yuanairen aurreko ahultasun txikia yenaren aurreko sendotasunak eta liberaren aurreko egonkortasunak konpentsatu baitzuten neurri handi batean.

ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK (II)

	2024	2025	2026					
			Urtarr.	Otsail.	Martx.	Apiri.	Maiat.	Ekain. (**)
Truke tasak								
Dolarra/euro	1,082	1,171	1,174	1,182	1,156	1,171	1,167	1,157
Yena/euro	163,8	182,5	183,9	183,5	182,4	186,2	184,7	185,47
Libera esterlina/euro	0,847	0,880	0,875	0,868	0,866	0,869	0,866	0,864
€ efektibo nomin.(%)	98,4	102,3	101,8	101,8	100,8	101,3	100,82	100,48
Burtsa indizeak (*)								
IBEX35	14,8	48,1	4,1	6,9	-0,7	3,5	6,9	13,8
Eurostoxx-50	10,8	18,1	3,5	6,6	-3,1	2,3	5,1	9,8
Dow Jones	12,9	13,0	0,0	1,9	-3,6	3,3	6,2	7,6
Nikkei 225	19,2	27,2	5,1	16,0	0,6	16,8	30,7	37,6
Standard & Poors 500	23,3	16,4	1,4	-1,0	-4,6	5,3	10,7	9,2

(*) Hazkunde metatua urte hasieratik hilaren azken egunera arte. Datuak ekainaren 22ra arte.

Iturria: Espainiako Bankua eta Expansión.

Errenta aldakorreko merkatuetan, epealdi horretan argi eta garbi bereizi ziren martxoaren amaieran ikusitako zuzenketa eta ondorengo bilakaera. Lehen une horretan, ziurgabetasun geopolitikoaren gorakadak eta energiaren garestitzeak indize nagusien beherakada orokorra eragin zuten, eta urte hasieratik metatutako irabazien zati handi bat galdu zuten. Hala, IBEX-35ek %7 inguru egin zuen gora otsailaren amaieran, eta -%2,7 inguruko jaitsierak erregistratu zituen martxoaren amaieran; Eurostoxx 50ek, berriz, -%4,4 ingurura egin zuen atzera.

Apiriletik aurrera, ordea, burtsak pixkanaka suspertzen hasi ziren, finantza testuingurua hobetzean eta enpresa emaitzen erresistentzian oinarrituta. Susperraldi hori ez zen homogeneoa izan eskualdeen artean. Europan, aurrerapena gehiago oinarritu zen ziklo ekonomikoari lotutako sektoreetan, eta, horri esker, Eurostoxx-50 6.300 puntu inguruan kokatu zen ekainaren erdialdean, urte osoan %13tik gorako errebalorizazioarekin. Espainian, hobekuntza mailakatuagoa izan zen, baina handiagoa metatutako terminoetan: IBEX-35 indizeak 19.000 puntu gainditu zituen lehen aldiz ekainaren erdialdean, eta 19.500 puntu inguruko mailetara iritsi zen; horrek esan nahi du %13tik gorako aurrerapenak izan direla aurtan.

Atlantikoaren beste aldean, susperraldia ere iraunkorra izan zen, merkatu tonua hobetu egin baitzen arriskuarekiko ezinikusia murriztu ahala, nahiz eta tarteko hegazkortasun gertakariak


izan. Bilakaera hori S&P500 eta Dow Jones indizeen aurrerapen progresiboetan islatu zen apirilean eta maiatzetan. Lehenengoak %8 inguruko errealizazioak metatu zituen aldi osoan, eta bigarrenak %7koa. Testuinguru horretan, merkatu estatubatuarraren portaera konpainia teknologiko handien pisuak baldintzatu zuen neurri handi batean, errenta aldakorren euskarri nagusi gisa jardun baitzuten berriro. Asian, bestalde, Nikkei portaera bereziki dinamikoa izan zuen eta %40 inguruko aurrerapenak metatu zituen urteko lehen hilabeteetan, faktore globalak eta teknologiarik lotutako sektoreen bultzada islatuz.

Euriborrari dagokionez, martxotik aurrera interes tasaren goranzko joera aldatu zen, zenbait hilabetez egonkor egon ondoren. Zehazki, otsailean %2,22 inguruko balioak izatetik maiatzetan eta ekainean %2,80 ingurukoak izatera igaro zen indizea, eta hiru hilabete eskaseta puntu erditik gorako hazkundera metatu zuen. Gorakada hori moneta politikaren igurikimenak berrikusteko testuinguru batean gertatu zen, Europako Banku Zentralak inflazioaren gorakadari erantzuteko egin zitzaizkeen mugimenduak aurreratuz. Hala ere, goranzko joera hori gorabehera, Euriborraren azken aldiko portaerak adierazten du nolabaiteko egonkortzea egon dela %2,8 inguruko mailetan, aurreko hilabeteetan erabiltzen ziren igoera aurreikuspen gogorragoetatik aldenduz. Hala ere, aurreko urtearekiko hazkundera esanguratsua izan zen, urte arteko 0,7 puntu inguruko hazkundera, eta hori finantza baldintzetara aldatu zen partzialki.

Etxebizitzaren hipoteken bilakaera

Batez besteko zenbatekoa (ezkerrean, milak)
hipoteka kopurua (eskuinean, milak)

Euriborra 12 hilera



Martxoko Euriborraren datua ekainaren 22ra arte batez bestekoa da.
Iturria: INE eta Espainiako Bankua.

Hipoteka merkatuari dagokionez, aldi horretan izandako bilakaerak ez zien berehala erantzun, ezta proportzionalki ere, euriborraren mugimendu horiei. 2025. urtearen ondoren, bereziki dinamikoa, 2026. urtearen hasiera joera aldaketa batek markatu zuen, hiru hilabetez jarraian

behera egin baitzuen urte artean, eta %7,5eko jaitsiera metatua izan baitzen Euskadin lehen hiruhilekoan sinatutako hipoteken kopuruan, finantzaketa baldintzak gogortu ziren testuinguru batean. Hala ere, apiriletik aurrera jarduera suspertu egin da, aurreko urteko hilabete beraren aldean eragiketa kopurua %6,5 igo baita, eta sinatutako hipotekak 1.799 igo dira. Horrek esan nahi du merkatua suspertu egin dela hasierako doikuntzaren ondoren. Portaera hori gertatu zen hipoteka berrien batez besteko interes-tasa %2,9 ingurukoa izan zen testuinguruan, finantzaketaren garestitzea islatuz, baina eskariaren gorakada eragotzi gabe.

Oro har, ikusitako bilakaeraren arabera, euriborraren hazkundeak finantza baldintzak gogortzen lagundu bazuen ere, hipoteka merkatura partzialki eta denbora desfase apur batekin eraman zen. Horrela, egokitzapenaren lehen hiruhileko baten ondoren, apirilean erregistratutako susperraldiak agerian uzten du beste faktore batzuk daudela, hala nola etxebizitza eskariaren sendotasuna, jarduerari eusten jarraitu zutenak, nahiz eta tasa handiagoak izan.

Aurreikuspenak

Munduko ekonomiarako perspektibek Ekialde Hurbileko gatazkaren bilakaerari lotuta jarraitzen dute. Lehengai energetikoen prezioek nabarmen egin dute behera Ameriketako Estatu Batuen eta Iranen arteko aurretiazko akordioaren iragarpenaren ostean, eskualdean liskarrak etetea eta Ormuzeko itsasartea irekitzea aurreikusten duena. Hala ere, airean da bere gauzatzea eta, nolanahi ere, shock energetikoak inflazioan izango duen eragina iraunkorra izango da. Ez bakarrik itsas fluxua, energia azpiegituren egoera, hornidura kateak, ontzi enpresen eta aseguru-etxeen konfiantza eta energia-erreserben berreskurapena eta indartzea normalizatzeko hilabeteak beharko direlako, baizik eta, prozesu horiek azkartu arren, prezioek aurreko mailetaraino jaisteko denbora beharko dutelako, eta gainerako produktuei eta ondorengo bigarren txandako ondorioei eskualdatzea deskontatuz jotzen delako, neurri batean behintzat. Hala, banku zentral batzuek dagoeneko egin dituzte interes-tasen lehen igoerak urteetan.

Azken asteetan inflazioaren goranzko eta hazkundearen beheranzko berrikuspenak egin dira, nahiz eta gatazka piztu eta gutxira proiektatutako kontrako agertoki alternatibo batzuek adierazten zutena baino txikiagoak izan diren. Nazioarteko Diru Funtsaren aurreikuspenen arabera, munduko hazkundeak %3,1ekoa izango da 2026an, 2024. eta 2025. urteetan ikusitakoa baino lau hamarren txikiagoa, eta 2027. urterako %3,2ko aurreikuspenari eutsiko dio. ELGAK, bestalde, zifra horiek pixka bat jaisten ditu, %2,8ra eta %3,1era, hurrenez hurren. Esportazioek behera egingo dute munduko BPGaren ehunekoan, zerbitzu-merkataritzaren murrizketa ondasun-merkataritzarena baino askoz ere txikiagoa izanik. Horrela, munduko merkataritzaren hazkundeak 2025ean ikusitako %5,1etik 2026an %2,8an geldituko da, eta 2027an %3,8ra igoko

da, Nazioarteko Diru Funtsaren arabera. Eskari globalaren ahultzeak Txinaren hazkundera geldiaraziko du, esportazioen mende baitago oso; izan ere, 2025ean erregistratutako % 5etik 2026an %4,5era igaroko da, eta 2027an %4 baino zeozer altuagoak diren tasetara moteltzen jarraituko du.

Estatu Batuetan hazkundera egonkorra izatea espero da datozen urteetan, 2025ean %2,1 ingurukoa izango baita, inbertsio pribatuaren sendotasunean oinarrituta, bereziki sektore teknologikoan, eta zerga politika laxoan. Familien kontsumoak prezioen igoera nabarmenduko du, nahiz eta beste ekonomia aurreratu batzuetan baino erresilientzia handiagoa erakusten duen, eta nahiz eta soldata errealek zenbait hilabetetan atzera egin duten. Enpleguak ere dinamismoa galdu du, hazkundera dezelerazio nabarmena izan baitu azken urtean; langabezia tasa, berriz, egonkor samar mantendu da, biztanleria aktiboaren ahulezia islatuz. Testuinguru horretan, Erreserba Federalak interes-tasei eustea erabaki du, eta inflazio-aurreikuspenak gorantz berrikusi ditu. Hala, murrizketen hasiera atzeratu du, kide batzuek igoera berriak ere izango direla aurreikusita.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			Kontsumoko prezioak		
	2025	2026	2027	2025	2026	2027
Munduko ekonomia	2,8	2,5	2,6	2,8	3,4	2,7
AEB	2,1	2,1	2,1	2,7	3,6	2,5
Kanada	1,9	0,8	1,9	2,1	2,7	2,1
Japonia	1,1	0,6	0,8	3,2	2,1	2,4
Eurogunea	1,4	0,6	1,2	2,1	2,9	2,3
Europar Batasuna	1,7	1,0	1,4	2,8	2,8	2,2
Alemania	0,2	0,7	1,2	2,2	2,8	2,3
Espainia	2,8	2,2	1,9	2,7	3,3	2,3
Frantzia	0,9	0,6	0,9	0,9	2,1	1,7
Herbehereak	1,8	1,1	1,1	3,2	3,1	2,7
Italia	0,5	0,6	0,7	1,5	2,9	2,0
Erresuma Batua	1,4	0,9	1,0	3,4	3,3	2,9
Asia Pazifikoa	4,2	3,9	3,7	1,2	2,1	2,0
Ekialdeko Europa	2,4	2,1	2,5	10,2	9,2	7,1
Latinoamerika (Venezuela ezik)	2,3	2,0	2,3	6,4	6,9	5,2

Iturria: Consensus Forecasts (2026ko ekaina).

Bestalde, Europako Banku Zentralaren proiektzio makroekonomiko berriek inflazio helburua lortzeko aurreikuspena atzeratu egin dute. Martxoan 2027rako espero zen, eta orain 2028an aurreikusten da; horren ondorioz, Bankuak oinarritzko 25 puntu handitu ditu interes tasak. Hurrengo urratsak zalantzazkoagoak dira: energia-prezioen igoera gainerako inflaziora eramateak tasak igotzen jarraitzeko presioa egingo luke, baina urte honetarako espero den hazkunde ahulak, soldaten hazkundearen moteltzearekin batera, epe ertainera inflazio arriskuak murriztuko lituzke. Izan ere, Banku Zentralak berak bileraren ostean adierazi zuenez, oraindik ez da bigarren txandako ondorioz ikusten, hau da, ez dira oraingoz bultzatzen ari prezioen igoerak atzeraelikatzen dituzten soldata igoerak.

Shock energetikoak politika fiskala eta monetarioa koordinatzeko dilema bat azaltzen du. Energiaren prezioak bat-batean igotzearen ondorioek herritarrei laguntza fiskala ematera bultzatzen dituzte gobernuak, aldi berean inflazio arriskua dagoenean; eta moneta agintarien inflazioaren kontrola hutsaldu egin daiteke, baldin eta hedapen fiskalerako beharrezkoak diren bono-jaulkipenak babesten badituzte, bereziki epe luzerako interes tasa errealak nahiko handiak direnean, lehen mailako defizit zabalak daudenean eta zor publikoa handia denean ekonomia aurreratu nagusietan.

Horrela, Europar Batasunean energia shockaren ondorioak gutxienez urtebetez mantentzea espero da. Batzordeak 2026rako hazkundean 0,3 pp-ko berrikuspena egin du gatazkaren aurreko zenbatespenarekin alderatuta, % 1,1eraino jaitsez; datorren urteko hazkundera, berriz, % 1,4koa izango da. Ekaineko Consensus Forecast panelak, bestalde, aurreikuspen horiek % 0,6 eta % 1,2raino jaitsi ditu, hurrenez hurren. Zifra horiek koherenteagoak izanik Irlandaren urte arteko hazkundeak Europar Batasunaren lehen hiruhileko baterako hazkundean duen beheranzko eragin etena ezagutu ondoren.

Kontsumo pribatuak jarraituko du izaten Europako hazkundearen eragile nagusia, baina higitu egingo da soldata errealean geldialdiaren eta aurrezpen prebentiboaren igoeraren ondorioz, eta ahalmen fiskal txikiagoa duten herrialdeetan baita beherakadak ere gerta daitezke. Ondasunen esportazioek ahul jarraituko dute 2026an, esportazioen guztizko hazkundera %0,9ra mugatuz, merkatu kuotaren galerarekin eta merkataritza balantzaren narriadurarekin. Testuinguru horrek, finantza gogortzearekin eta ziurgabetasunarekin batera, inbertsioa moteldu egingo du, eta 2025ean izandako %2,8ko hazkundera 2026an %2,2ra eta 2027an %2,0ra igaroko da. Inpaktu handiagoa izango du ekipamendu ondasunetan etxebizitzan baino, atzeratuagoa doana, eta erresilienteagoa izango da bizitegitarako ez den eraikuntza, MRR funtsen azken bultzadaren ondorioz. Enplegua 2026an eta 2027an aurreikusitakoa baino gehiago motelduko da, lan egiteko adinean dagoen biztanleria gutxiago haziko den testuinguruan. Industria ekoizpenak, berriz, aurtan atzera egingo duela adierazten du Consensus-ek ekainean.

Alemania da Euskadiko bazkide nagusien artean hazkundearen beheranzko berrikuspen handiena izan duena Europako Batzordearen arabera, urte arteko %1,2tik %0,6ra jaitsi duelako 2026rako, eta herrialdearen hazkunde potentziala laua mantendu du (% 0,4). Epe laburrean, murrizketa aurreikusten da bigarren hiruhilekoan, eta geroko geldialdia, hurrengo urtean hiruhilekoen arteko %0,3ko erritmoan aurrera egiteko. Horrela, 2027an hazkundera %1,2ra iritsiko litzateke, inbertsio eta kontsumo publikoan oinarrituta. Esportazioek industriaren ziurgabetasuna eta egiturazko ahuleziek baldintzatuta jarraituko dute, hainbat urtetako uzkurduraren ondoren, eta horren ondorioa 2025 eta 2027 bitartean ia geldirik geratuko den lan merkatua izango da. Hala ere, heterogeneotasun sektorial handia dago oraindik, eta manufacturatan enpleguaren suntsiketa, administrazioa, hezkuntza eta osasuna bezalako zerbitzuetan sortzen denarekin konpentsatuta ikusten da.

Frantzia, esportazioek konpentsatu egingo dute 2026an kontsumo pribatuak izango duen hazkunde ahula, etxeetako erosteko ahalmenaren galerak eraginda, energia shocka arintzeko zerga marjina mugatua duen testuinguru fiskal batean. Oro har, Frantziako ekonomia %0,8 haziko da 2026an, Europako Batzordearen arabera, naiz eta Consensus Forecast-ek %0,6ra jaisten duen. Datorren urtean, esportazio sektoreetako inbertsio pribatuak eta kontsumo pribatuaren hobekuntzak jardueraren hazkundera zeozer gora egitea eragingo dute, %1 inguruko tasetaraino.

ESPAINIAKO EKONOMIARAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2026ko ekaina)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2026			2026	2027
	II	III	IV		
BPG	2,5	2,4	2,0	2,4	2,0
Kontsumo pribatua	3,1	2,8	2,3	2,9	2,3
Kontsumo publikoa	2,0	0,6	0,6	1,3	1,1
Kapital eraketa gordina	5,5	4,6	3,5	4,8	3,5
- Taldeko inbertsioa	3,9	3,7	3,5	3,7	3,1
- Landatutako aktib. inbertsioa	5,9	5,1	4,4	5,3	4,2
- Eraikuntzako inbertsioa	5,9	4,4	2,6	4,7	3,2
Barne-eskaria	3,4	2,7	2,2	3,0	2,3
Esportazioak	1,6	3,0	2,8	2,1	2,3
Inportazioak	3,9	4,0	3,5	3,6	3,2

Iturria: Ceprede.

Espainiako ekonomiaren hazkundera nahiko sendoa izango da 2026an nazioarteko testuinguruan, baina nolabaiteko dezelerazioarekin, barne-eskariaren dinamismo txikiagoa dela eta. 2025ean %2,8 igo ondoren, Espainiako Bankuak %2,3ko hazkundera aurreikusten du 2026an eta %1,7ekoa 2027an. Tasa horiek ez dira aldatu aurreko aurreikuspenarekin alderatuta, baina urtearen bigarren erdian moderazioa aurreikusten du, bigarren hiruhileko hobearekin eta goranzko berrikuspen demografikoekin konpentsatuko dena. Ceprede baikorragoa da, eta aurreikuspen horiek %2,4 eta %2,0ra igotzen ditu, familien kontsumoak eta inbertsioak eutsita, esportazio garbien oztopoa indargabetzen dutenak. Bestalde, enplegua moteldu egingo da, 2025eko %2,7tik 2026ko %2,2ra eta 2027ko %1,5era.

Ziurgabetasunak handia izaten jarraitzen du euskal ekonomiarentzat, nahiz eta nabarmen murriztu den duela hiru hilabete baino, orduan egin baitzen aurreko koadro makroekonomikoa, Estatu Batuen eta Iranen arteko duela gutxiko bake akordioaren ondoren. Hipotesien arabera, zuhurtziagatik, prezioak apur bat igo dira, baina inflazio arriskua moteldu egin da. Ildo beretik, Euriborraren bilakaera 2026an eta 2027an izandako mailetan mantenduko da (%2,4 eta %2,6), eta EBZren diru politika bat aurreratuko da, shock energetikoaren bigarren txandako ondorioak saihestera bideratua; nolanahi ere, ez da iritsiko Ukrainako gerraren ondoren ikusitako magnitudea. Truke tasa euro bakoitzeko 1,17 dolar ingurukoa izango da, eta dolarraren balio galeraren joera 2025ean hasi zen. Azkenik, kanpoko merkatuek dinamika desberdinak erakusten dituzte: Espainiak hazkunde sendoa izango du 2026an, eta bultzada apur bat galduko du 2027an; Europa, berriz, hasiera ahul baten ondoren, suspertzen joango da urtean zehar, eta hazkunde-erritmo handiagoa sendotuko du 2027an.

AURREIKUSPENAK EGITEKO HIPOTESIAK (2026ko ekaina)

Mailak eta urte arteko aldakuntza tasak

	2026			2026	2027
	II	III	IV		
Euriborra (3 hileko)	2,4	2,5	2,5	2,4	2,6
Euro dolar truke tasa	1,17	1,18	1,16	1,17	1,17
Espainiako BPGa	2,5	2,4	2,0	2,4	2,0
ELGAren BPGa	1,6	1,3	1,5	1,5	1,7
Euroguneko BPGa	0,6	0,6	0,7	0,7	1,4
Espainiako konts. prib. deflaktorea	3,4	3,3	2,5	3,0	2,2
Espainiako ond. esport. Deflakt.	2,2	2,8	3,1	1,8	2,3

Iturria: Ceprede eta Europako Banku Zentrala. Hipotesien itxiera data: 2026ko ekainak 17.

Euskadiren aurreikuspen makroekonomikoei dagokienez, hartutako hipotesien jarraitutasunak eta lehen hiruhilekoan Ekonomia Zuzendaritzak duela hiru hilabete aurreratutakoarekin bat datorren hazkundeak, euskal ekonomiaren egonkortasuna islatzen dute, kanpoko ziurgabetasuna gorabehera. Testuinguru horretan, 2026rako hazkunde aurreikuspenari %1,9an eutsi behar zaio. Hazkunde hori barne eskari sendoago batean oinarrituko da, kontsumo pribatuan erresistentzia erakusten duena, Ekialde Hurbileko gerraren ondoriozko inflazioak gora egin arren. Aldi berean, kanpoko posizioaren narriadura nabarmenagoa aurreikusten da, nahiz eta bi dinamikek intentsitatea galduko duten urteak aurrera egin ahala. 2027an, industriaren portaera hobeak eta aurreko urteko bultzadaren zati bati eusten dion barne eskariak hazkundea hamarren bat gorantz berrikustea ahalbidetzen dute, %1,7ra arte.

Barne eskariak euskal ekonomia bultzatzen jarraituko du, eta, aurreikuspen berri horietan, protagonismo handiagoa izango du, nahiz eta beheranzko joera izan denboran. Kontsumo pribatua %2,6 haziko da, eta horrek esan nahi du moteltze mailakatua izango dela urteak aurrera egin ahala; hala ere, balio handia da, inflazioa %3tik gora kokatu den testuinguruan, energia prezioen igoeragatik, eta enplegua sortzeko erritmoa txikiagoa izango dela aurreikusten den testuinguruan. Ildo horretan, beste azalpen aldagai bat da soldaten erosteko ahalmena pixkanaka berreskuratzen joan dela pasa den urtean eta 2026ko lehen hiruhilekoan. Gogoratu behar da iazko bigarren seihilekoan ere prezioen igoera %3tik gorakoa izan zela, eta kontsumoa antzeko erregistroetan mantendu zela. Oraingoz, gertaera berrienek ez dute esan nahi energia-shockak okerrera egingo duenik, ezta prezioen bat-bateko gorakadarik izango denik ere, zerga neurriak luzatu ala ez. Hala ere, ezin dira baztertu bigarren txandako ondorioak datozen hilabeteetan, eta, gainera, hain hedakorra ez den diru moneta politika batek bertan dagoen kontsumoa motelduko du.

Kapital eraketa gordina hazi egingo da, nahiz eta beheranzko joerari eutsi: %3,3 2026an eta %2,5 2027an. Orain arte, inbertsioaren azken bi hiruhilekoetako hazkunde tasek dezelerazioa adierazten dute, bai ekipo ondasunen inbertsioan, bai modu nabarmenagoan eraikuntzan eta gainerako inbertsioan. Lehen azaldu dugun bezala, enpresentzako finantzaketa baldintzak zorrotzagoak izango dira interes tasen igoeragatik. Gainera, eta ohartarazi dugunez, MRRri lotutako inbertsio proiektuen finantzaketaren amaierak eragin negatiboa izango du hazkunde tasan, nahiz eta ondorio biderkatzaileak izan oraindik. Ekialde Hurbileko gatazka amaitzeko akordioekin, horri lotutako ziurgabetasunaren eragina mugatuagoa izan liteke, eta bigarren hiruhilekora mugatu.

Kanpoko eskariak bederatzi hamarren kenduko dizkio euskal ekonomiaren hazkundeari 2026an eta beste hiru 2027an. Esportazio dinamika negatiboa da, eta lehen hiruhilekoko beherakadaren zati bat puntuala izan badaiteke ere, eta energia shockarekin lotuta egon ez arren, euskal ekonomiak hiru hiruhileko daramatza ia hazkunde puntu bat galtzen, esportazio jardueraren beherakadaren eta merkataritza saldo negatiboaren ondorioz, hedakortasun handiegiko aldiei

dagokien beheranzko dinamikarekin, eta hori ez da gaur egungo kasua. Kanpo lehiakortasuneko arazoez eta ziurgabetasun handiak euskal esportazioak geldiarazten jarraituko dute, nahiz eta 2027an efektu hori onberagoa izango den Europako ekonomien hazkunde handiagoaren ondorioz.

EAE-KO EKONOMIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2026ko ekaina)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2026			2026	2027
	II	III	IV		
BPG	2,0	1,8	1,8	1,9	1,7
Azken kontsumoa	2,7	2,4	2,3	2,6	1,8
Kontsumo pribatua	2,8	2,5	2,4	2,6	1,8
Kontsumo publikoa	2,6	1,8	2,1	2,7	1,8
Kapital eraketa gordina	3,8	2,5	2,2	3,3	2,5
Barne eskariaren ekarpena	3,0	2,4	2,3	2,8	2,0
Kanpo saldoaren ekarpena	-1,0	-0,6	-0,6	-0,9	-0,3
Lehen arloa	-0,2	0,7	0,9	0,2	2,0
Industria eta energia	0,5	0,9	1,1	0,6	1,6
Eraikuntza	1,6	0,2	0,3	1,1	1,5
Zerbitzuak	2,5	2,2	2,2	2,5	1,8
Balio erantsi gordina	2,0	1,8	1,8	1,9	1,7
Ekoizkinen gaineko zergak	1,7	1,9	1,2	1,8	1,5
BPG nominala	4,8	4,8	4,6	4,7	4,1
BPGaren deflatoarea	2,8	2,9	2,8	2,8	2,4
Lanaldi osoko lanpostuak	1,2	1,2	0,9	1,1	0,9
Landunak (BJA)	1,0	1,4	1,3	1,4	1,0
Langabezia tasa (%)	6,4	6,6	6,3	6,5	6,2

Iturria: Ekonomia Zuzendaritza.

Kanpo merkatuen ahultasun hori industria sektorera helarazten da batez ere, eta sektore horrek ere urte hasiera txarra izan du. Aurreikuspenen arabera, industriaren balio erantsiaren sorkuntzak hobera egingo du urteak aurrera egin ahala, nahiz eta, oro har, urteko hazkundera txikia izango den, %0,6koa baino ez, 2025aren ondoren. Hala ere, Europako ekonomiek 2027an izango dituzten aurreikuspen onenek euskal industriaren gorakada apala eta %1,6 haztea ahalbidetuko dute. Hala badagokio, Ekialde Hurbileko gatazka amaitzeko deseskalatze akordioak

lortu diren arren, industria prezioak %5 baino gehiago igo dira apirilean, energiaren garestitzearen eta industria ondasun guztiak kutsatzeko mehatxuaren ondorioz, lehiakortasun galerak eraginda.

Kontrako noranzkoan, zerbitzuek erritmo handian hazten jarraituko dute, euskal ekonomiaren gutzizkoaren gainean pisua irabaziz eta lanpostu berrien zati handi bat sortuz. Koiunturako adierazle berriek ostalaritzaren, merkataritzaren eta jarduera profesionalen dinamismo handia adierazten dute. Administrazio publikoari lotutako jarduerak tonu neurritsuagoa dute eta, aitzitik, badirudi garraioak kalte egin diola erregaien garestitzeari. Eraikuntzaren sektoreak, kapitalaren eraketa gordinarekin gertatzen zen bezala, dezelerazio zantzuak ditu, eta, beraz, beheranzko profila hartuko du aurreikuspenaren horizontean.



BPGaren deflaktorea %2,8 handituko da 2026an eta %2,4 2027an; hau da, bi hamarren 2026an eta hiru hamarren 2027an. Duela hiru hilabete aurreikusitako berrikuspenari gehituko zaizkio, eta zifra batzuk marraztu dituzte 2025ean aurkeztutako koadro makroekonomikoetatik urrun. Ekialde Hurbileko gatazka abiarazle gisa hartuta, prezioen normalizazioaren bidea ez da espero 2028a baino lehen gertatzea. Horrela, BPG nominala % 4,7 handituko da 2026an eta %4,1 2027an, 108.047 eta 112.518 milioi eurotan kokatuz, hurrenez hurren.

2026ko eta 2027ko aurreikuspenak (I)

Urte arteko aldakuntza tasak

Barne produktu gordina

Enplegua




Iturria: Ekonomia Zuzendaritza.

Lanpostu baliokideei dagokienez, enpleguaren hazkundea %1,1 igoko da 2026an eta %0,9 2027an, eta 11.000 eta 9.000 lanpostu inguru sortuko dira, hurrenez hurren, urte bakoitzean. Beraz, lanaren produktibitate errealek hazkunde historikoaren batez bestekoaren antzeko portaera erakutsiko du, hurrengo bi urteetan %0,8 inguruko aurrerapenekin. Landunei dagokienez, urteko hazkunde tasen berrikuspena handiagoa da, lehenengo hiruhilekoan okupazioa asko hazi delako eta, batez ere, biztanleria aktiboa hazi delako. 2025ean, biztanleria aktiboa %0,3 baino ez zen hazi, nahiz eta 16 urtetik gorako biztanleria %0,8 handitu. Hala ere, BJAren 2026ko lehen hiruhilekoko datuen arabera, biztanleria aktiboa gehiago hazi da. Igoera horrek, iazko bigarren hiruhilekoko datuarekin batera, azaltzen du 2026rako aurreikusitako langabezia tasa 2025ekoa (%6,5) baino hamarren bat handiagoa izatea. Hala ere, 2027an langabeziak beheranzko bidea hartuko du berriro, %6,2an kokatu arte.


Beste organismo batzuen aurreikuspen sorta txikia da, eta eskura dauden bederatzi balioak hiru hamarren eskasekoak dira, % 1,8 eta % 2,1 artekoak. Cerepre, Caixabank Research edo BBVA Research-en eguneratze berrienek bere horretan jarraitu dute edo ez dute ia aldaketarik izan; beraz, baztertu egin da shock energetikoak euskal ekonomian eragin handia izatea. Datorren urteko aurreikuspenei dagokienez, erabilgarri dauden bost aurreikuspenetatik lau beheranzko hazkunde-profila proiektatzen dute euskal ekonomiarako, eta %2tik beherakoa; BBVA Research-ek, berriz, hazkunde bide gorakorra eta % 2tik gorakoa aurreikusten du, nahiz eta, bere kasuan, %2,4ko datua lau hamarreneko murrizketa den martxoarekin alderatuta.

2026ko eta 2027ko aurreikuspenak (II)
Urte arteko aldakuntza tasak

Aurreikuspen panela 2026



Aurreikuspen panela 2027



Iturria: Ekonomia Zuzendaritza (2026eko ekaina), Cerepre (2026eko ekaina), Confebask (2025eko abendua), Hispalink (2026eko urtarila), BBVA Research (2026eko ekaina), Eusko Ganberak (2025ko abendua), Laboral Kutxa (2025ko abendua) eta AIRef (2025eko urria).